

hh
hik hasi

Maria Solanari elkarrizketa
Filosofia, pentsatzen ikasteko giltza
Ebaluazio hezitzailea iruten
Irakasleen bilakaera profesionala
Bigarren Hezkuntzan
'Ongi-etorri lagun', CDa eta antzerkia
Ixabel Agirresarobe



**GARAPENAREN
ANTOLATZAILEAK**

10. ekar ILUSTRAZIO ETA IPUIN LEHIAKETA

oinarriak: www.ekar.eus-en
eta ekar sareko liburu-denda
guzietan



antolatzailea

ekar

lugarburua



LABORAL
EUSKAL
ERAKUNDA

laguntzaileak



Wikipointa



Serretortzi



ERAKUNDA



NABA

ERAKUNDA

ERAKUNDA

AURKIBIDEA

GAIA / 10

GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

Haurren garapena haren barnean gertatzen diren transformazio multzo gisa definitzen du "Garapenaren Antolatzaileak" izeneko teoriak. Transformazio horien bidez, umeak hainbat konpetentzia eskuratzen dituela dio, hala, gero eta autonomia handiagoa eskuratuz joan dadin. Bost antolatzailez hitz egiten du: atxikimendua, komunikazioa, esplorazioa, postura-segurtasuna, eta ordena sinbolikoa.

ELKARRIZKETA / 20

MARIA SOLANA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilaria eta bozeramailea da Solana. Jose Luis Mendozak dimisioa eman ostean hartu zuen kontseilari kargua eta ia urtebete darama zeregin horretan. Hezkuntza Departamentuaren jarduna gizarteratzea izan da bere egiteko nagusia aldi horretan, eta hiru plan jarri ditu martxan: aniztasuna artatzeko plana, Lanbide Heziketako plana eta hezkidetzeta plana.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-02-26).

Kopurua: 3.200 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

5 EDITORIALA

Munduari begiratzeko modu bat

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Atxikimendua, esplorazioa, komunikazioa, postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa

20 ELKARRIZKETA

MARIA SOLANA

"Metodologia aktiboak eta berrikuntza bultzatzea da hobekuntzarako gakoa"

28 EKARPENAK 1

Filosofia, pentsatzen ikasteko giltza

34 EKARPENAK 2

Ebaluazio hezitzailea iruten

36 GALDEIDAZU

IMANOL IRAOLA

Nolako da irakasleen bilakaera profesionala Bigarren Hezkuntzan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Ongi-etorri lagun' CDa eta antzerkia eskuragarri

42 ATZEKO ATETIK

Ixabel Agirresarobe

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Munduari begiratzeko modu bat

editoriala

HEZITZAILEOK IZUGARRIZKO INPAKTUA ERAGITEN DUGU HAURRENGAN. SEGUN ETA NOLA BEGIRATZEN DUGUN HAUR HORI, BEGIRADA HORREN ARABERAKOA IZANGO DA GURE ESKU-HARTZEA.



Haurtzaroaren eta 0-3 adin tartearen garrantzia behin eta berriz azpimarratzen da. Adin-tarte horretan oinarrituta garatuko duelako gero haurrak bere nortasuna eta aterako delako bizitzara. **Myrtha Chokler** psikomotrizistak aldizkari honetako gai nagusian oroitarazten duen moduan, norbera izatearen sentimenduaren muina lehen urteetako esperientzia horien gainean egituratzen da. Mundura sortzen den unetik gaitasundun dator umea, sendo, autonomiarako grinaz... baina aldi berean baita erabat hauskor ere. Horregatik behar du alboan sostengua emango dion heldua, babesa eskainiko diona, lagun egingo diona, goxotasuna eta afektua adieraziko dizkiona, segurtasun fisikoa nahiz emozionala emango diona. Hain zuzen ere, heldu horren presentziaren eta begiradaren baitan garatuko delako haurra.

Hezitzaile gisa, baina, nola ikusten dugu haurra? Zein betaurrekorekin begiratzen diogu? **Itziar Arregi eta Eider Salegi** Mondragon Unibertsitateko Hazitegi iker-taldeko kideen esanetan, haurrarekiko begirada horren gainean hausnartu behar dugu, ezinbestean. Ezin dugulako ahaztu hezitzaileok izugarritzko inpaktua eragiten dugula haurrarengan. Beraz, segun eta nola begiratzen dugun haur hori, begirada horren arabera izango da gure esku-hartzea, eta hemen eta orain egiten dugunak, alegia, helduon uneoroko jokabideak zerikusi zuzena izango duelako haur horren geroan.

Sarri, ordea, **Ana Santamaria** irakasle eta Montessori eredu gidariak aldizkari honetako lehen ekarpenean dioen legez, ez al dugu haurren gain uzten etorkizunaren pisua? Ez ote dizkiegu helduoi dagozkigun hainbat ardura

haien bizkarrean botatzen? Ez al ditugu heldutasun jakin bat eskatzen duten zenbait erabaki hartzera behartzen? Ez ote ditugu “autonomiaren” izenean, maiz, haurrak bakarrik uzten? Alegia, umeak berez dakarren sendotasun horretan indar egin beharrean, ez ote dugu, askotan, are eta hauskorrago egiten haurra?

Zeren, bai, helduok erantzule gara; hemen eta orain gurekin dauden haurrek izango duten bizi-tzaren erantzule, hein batean bederen. Eta baita eraikitzen ari garen jendartearen eta egiten ari garen munduaren erantzule ere. **Miren Camison** haur filosofoak testu berean dioen moduan, hezkuntza ez delako izate abstraktu eta ikusezin bat. “Pertsonak gara eragile. Gu denok: guraso, irakasle, senide, adiskide, herritar...”. Beraz, nola koka gaitezke gutako bakoitza haurrekiko harremanean? Zer-nolako jarrera har dezakegu haurren heziketan, jakinik horrek era bateko edo besteko gizartea eraikitzea esan nahiko duela?

Izan ere, **Ibai Iztueta** Bigarren Hezkuntzako irakasleak aldizkari honetan aipatzen duen eran, mundua konplikatua zen lehen ere, baina gero eta konplikatua izango da, ziur asko. “Eta duintasun pixka batekin aurrera egingo badugu, eta protagonista izango bagara, beharrezko izango dugu mundua interpretatzeko behar besteko kultura maila”. Gizarte batean balio humanizazioak nola mamitzen diren aztertzeaz mintzo da, berriz, **Jon Sarasua** pentsalaria artikulua berean. Eta haurrak haztea, hezte, heldutea, ikastea, garatzea... humanizazio-prozesu bat da. Mundua hobetzeko giltzarrietako bat. Eta, egiteko hori umea gure artera sortzen den unetik hasten da, haurrari begiratzeko modua, munduari begiratzeko modua ere badelako.

“Zer irakatsi diegu haurrei eskolan, euskara ala euskaltzaletasuna? Euskara irakatsi diegu apaizei latina bezala. Zer lortu dugu? Euskaraz dakien erdaldun mordoa. Hezkuntza sistema hori fabrikatzeko diseinaturik dago”

Juan Inazio Hartsuaga



NAFARROAKO HEZKUNTZA SINDIKATUAK PROTESTAN ATERA DIRA

Nafarroako hezkuntza arloko sindikatu guztiak elkarrekin atera ziren protesta egitera Nafarroako Hezkuntza Departamentuarekiko desadostasuna adierazteko. Sindikatuen esanetan, Hezkuntza Departamentuak sektoreko itunaren negoziazioa “alde baka- rrez” hautsi du. Ia urtebete aritu dira mahai sektorialean sindikatuak eta Departamentua, eta nahiz eta azken honek akordioak egiteko borondatea erakutsi, azken hilabeteetan ez ditu bere konpromisoak zehaztu, sindika- tuen esanetan. Hezkuntzako murriz- keten aurreko egoerara itzultzeko “konpromisoa” exijitu diote sindika- tuek lauko gobernuari.

Aldiz, Maria Solana Hezkuntza kon- tseilariak adierazi zuen negoziazioa ez zela “alde bakarrez” geldiarazi. Haren esanetan, hitzarmen proposamen bat egin zuten, baina dena eta orain ezin dutenez bete, ez dute bete ezin dutena sinatuko. Arazoa ekonomikoa dela nabarmendu zuen.

Hezkuntzako kalitatearen alde, murrizketarik ez lelopean elkartu dira mahai sektorialean egon diren beder- ratzi sindikatuak: LAB, Steilas, Afapna, CCOO, Anpe, ELA, CSI-F, APS eta UGT. Kanpaina informatiboa egiteari ekin diote eta ikastetxe, guraso elkarte, alderdi, ikasle sindikatu eta eragile so- zialekin biltzen ari dira. Aldarrikapenak eta helburuak gizarteratzeko abiatu dute kanpaina. Ez diote aterik itxi aurrerantzean bestelako mobilizazioak eta protestak antolatzeke aukerari.

EAE-RAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA AURKEZTU DU CRISTINA URIARTE HEZKUNTZA SAILBURUAK

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak bilera bat egin zuen hezkuntza eta gizarte eragileekin elkartu eta Hezkuntzaren aldeko Akordioa aurkezteko. Bertan, Akordioaren Oinarriak lehen dokumentua aurkeztu zien sailburuak eragileei. EAEko hezkuntza-sistema osatzen duten eremuak ongi ezagutzen dituzten hainbat kidek prestatu dute dokumentu hau, eta bertan, hezkuntza-sistemaren oinarritzko alderdiak jasotzen dira. Ondoren ekarpenak egiteko aukera izan dute eragileek. Ekarpenak aintzat hartuta dokumentua moldatuko dute eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren eskuetan utziko dute, honek azter dezan. Hurrengo pausoa Legebiltzarrera bideratzea izango da eta haren eskuetan geratuko da Hezkuntza Legea egitea.

Aurkeztutako dokumentuak hainbat alor jorratzen ditu. Hizkuntzei dagokionez, dokumentuak helburuak zehaztu ditu: derrigorrezko eskolaldia amaitu aurretik B2 maila lortu behar dute euskaraz eta gaztelaniaz ikasleek, eta B1 maila inge- lesez. Kontseiluak begi onez ikusi du hori dokumentuan zehaztu eta jaso izana. Orain, hori lortzeko bitartekoak jartzea falta dela azpimarratu du, eta horietan eskatu ditu Hezkuntza Sailari egindako ekarpenean. Batetik, euskarazko eredu orokor bat, egungo ereduaren sistema gaitutuko duena. Eta bestetik, hizkuntza maila horiek eremu guztietan lortzeko neurriak eta baliabideak, leku bakoitzeko egoeraren arabera ez ditzaten hizkuntza xedeak jaitsi.

Gainerako eragileek bestelako gaiak ere aipatu dituzte: autonomia, elkarbizitza, publikotasuna eta titularitate ereduak, herriaren eta komunitatearen parte-har- tzea, ebaluazioa eta abar. Dena dago eztabaidagai.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

FRANTZIAKO GOBERNUAK BAXOAN ETA LIZEOAN ALDAKETAK EGITEKO ERREFORMA AURKEZTU DU



Baxoan eta lizeoan egin asmo dituen aldaketen berri eman zuen otsailaren 14an Frantziako Hezkuntza ministro Jean Michel Banquerrek. 1808an sortu zen baxoa azterketa eta egungo ministroak Pierre Mathiot unibertsitateko irakasleari eskatua zion hari buruzko txosten bat. Jarraian sindikatuekin hiru astez bilduta egon ondoren etorri da erabakia. Aldaketa nagusia proba kopuruan etorriko da: hamar azterketatik gora ditu egun eta laura murriztuko ditu erreformak: idatzizko hiru eta ahozko "handi" bat. Idatzizko bi Pazko asteko oporretatik landa igaroko dira eta beste idatzizkoa, Filosofiakoa izango dena, eta ahozkoa ekainean. Azken honetan hamar minutuz proiektu bat aurkeztu beharko dute, eta gero, hiru pertsonaz osatutako epaimahaiaren galderei erantzun beharko diete beste hamar minutuz. Gaur egun lizeoko lehen mailan (15-16 urterekin) aurkezten duten Lan Pertsonal Jarraituaren filosofia bera izango du ahozko proba honek.

Baxoaren moldaketak berekin dakar, nahitaez, lizeoko adarrak desagertzea. Gaur egun hiru adar daude: adar literarioa, ekonomiko-soziala eta zientifikoa. Erreformen arabera, hiru sail horiek desagertu eta 11 ikasgai espezializatu jarriko dira aukeran.

Dena dela, Hezkuntza ministroak ez ditu erreformaren zehaztasun guztiak eman. Sindikatuak dagoeneko kalera atera dira aurkakotasuna adieraztera. Datuzen aste eta hilabeteetan protestak indartu daitezke, eta ikusteke dago erreforma aurrera aterako den edo ez. Izan ere, 2005an, 2008an, 2010ean eta 2012an ere egin zituzten saiakerak gobernu desberdinek eta ez ziren aurrera atera.

NAFARROAKO AURREMATRIKULAZIO DATUETAN D EREDUAK BEHERA EGIN DU

Azken urteetan D ereduak Nafarroan izan duen goranzko joera gelditu egin da aurtengo aurrematrikulazio datuen arabera, eta kezka sortu du. Oro har, jaiotze tasaren beherakada dela-eta, ikasle gutxiago daude, baina halere, ehunekoak ere jaitsi dira pixka bat: iaz % 30,5ek eman zuten izena D ereduan eta aurtengo % 29,9k. Edonola ere, duela hiru urtetik atzerako datuei begiratuta, haien goitik daude aurtengo datuak.

Hezkuntza eragileak kezkatuta agertu dira. NIZE elkarteko arduradun Mikel Larrazak eremu ez-euskalduneko sare publikoan aurrematrikulazio gehiago espero zituztela esan du, ikusita D ereduko eskaintza handitzen ari dela pixkanaka.

Sortzenek gobernu berriaren aldetik ekimen indartsuagoa espero zuen D ereduaren alde. Hori dela-eta, euskarazko irakaskuntza hedatzeko plangintza bat eskatu du.

Nafarroako Ikastolen Elkarteak ere ez ditu uste zituen datuak eskuratu: esperotako ikastola batzuetan ez da ikasle gehiago aurrematrikulatu, eta espero gabeko beste zenbaitetan, aldiz, bai.

Oposizioaren jarrerak ere kontrakoa izaten jarraitzen du eta horrek guraso askorengan beldurra sortzen du.

Sortzenek umeak euskaraz aurrematrikulatzeko pausoa eman duten gurasoei eskerrak emateko ekitaldi bat egingo du Erriberrin apirilaren 15ean.



HIK HASIK ANTOLATUTA, HEZKUNTZA HOBETZEKO GAKOAK EZTABAIDATZEKO SAIOA EGINGO DA APIRILAREN 21EAN

Hik Hasik Hezkuntza Proposamena aurkeztu zuen ikasturte hasieran, *Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogikoa eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak* izenburupean. Hezkuntza hobetzeko xedez, proposamen horretan jasotzen diren hamar gakoak gainean gogoeta egin eta eztabaidatzeko jardunaldia antolatu du Hik Hasik apirilaren 21ean egun osoz Donostiako EHU. Aipatu gakoak aurkeztuko dituzte zenbait hizlarik, eta ondoren eztabaida eta ekarpenei emango zaie lekua.

Izena emateko eta informazio gehiagorako www.hikhasi.eus webgunera jo daiteke. Jardunaldiaren aurretik ekarpenak egiteko aukera ere badago bertan.



HITZALDI BAT ETA BI EGUNETAKO FORMAZIOA ESKAINIKO DITU OLGETAK

Olgeta haur zein helduentzako jolaserako baliabide zentroak bi hitzordu antolatu ditu apirilera. Batetik, apirilaren 27an hitzaldi bat eskainiko du Arrasateko Kultur Aten, 18:00etatik aurrera. Hitzaldiaren izenburua *Nola diseinatu heziketarako espazioak?*, eta hizlaria, berriz, Jenny Silvente pedagogo eta Ver, Pensar, Sentir mugimenduko kidea. Hitzaldia doan izango da, baina izena eman behar da.

Bestetik, apirilaren 28 eta 29rako hiru gai lantzeko formazioa antolatu du: argiaren pedagogia, mundu txikiekin jolasean eta harea lantegia. Formazioko saioak bibentzialak izango dira eta HUHEZI Fakultatean eskainiko dira. Emailea Jenny Silvente pedagogo eta Ver, Pensar, Sentir mugimenduko kidea izango da.

Izena emateko eta informazio gehiagorako www.olgeta.eus webgunera jo daiteke, olgeta@olgeta.eus-era idatzi edo 943 048 446 zenbakira deitu.

'JOLASA GIZARTE ERALDAKETARAKO TRESNA GISA' JARDUNALDIAK BILBON

Jolas eta Ekin eta Bolunta elkarteek antolatuta, *Jolasa gizarte eraldaketarako tresna gisa* jardunaldiak antolatu dituzte martxoaren 9 eta 10erako Bilbon.

Jardunaldien helburua jolastera ausartzea da, horrekin pertsona, talde eta gizarte bezala eraldatzen jarraitzeko. Horretarako, jolasa, lan-kidetzeta eta integrazioa jarriko dituzte praktikan. Norberaren esperientzia kontuan hartuta, harremanak balio horietan oinarritzeko eta sor daitezkeen aldaketa-akukerei zer garrantzia ematen zaien hausnartuko dute.

Aisialdiko begiraleei, Magisteritzako eta Pedagogiako ikasleei, irakasle eta hezitzaileei, gizarte langileei, GKEtako teknikariei eta interesa duen orori zuzendua dago jardunaldia.

Izena emateko eta informazio gehiagorako www.bolunta.org webgunera jo daiteke; formacion@bolunta.org eta jolasetaein@gmail.com helbideetara idatzi, edota 945 226 595 eta 944 161 511 telefono zenbakietara deitu.



HIZPIDE IZANGO DA

IREKI DA IZENA EMATEKO EPEA 2018-2019 IKASTURTEKO HAUR HEZKUNTZAKO 0-3 FORMAZIOAN



Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakontzeko asmoz, 260 orduetik gorako bi urteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean Hik Hasik, bere 6. promozioan.

Hiru oinarri nagusi ditu formazio horrek:

- Emmi PIKLER (Koordinatzailea: Juanjo QUINTELA)
- Loris MALAGUZZI (Koordinatzailea: Alfredo HOYUELOS)
- Formakuntza pertsonala (Koordinatzailea: Alvaro BEÑARAN)

Ikaslerro bakoitzean, gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza.

Informazio osoa eta izena emateko aukera: www.hikhasi.eus webgunean.

LUZARO PSIKOMOTRIZITATE ESKOLAK SENTSIBILIZAZIO IKASTAROAN IZENA EMATEKO EPEA IREKI DU

Luzaro psikomotrizitate eskolak Psikomotrizitate Praktika Hezitzailean bi urteko prestakuntza egin nahi dutenentzat, aurretik "Psikomotrizitate sentsibilizazio ikastaroa" antolatu du. Ikastaro hori egitea ezinbestekoa izango da hurrena antolatu duten psikomotrizitate ikastaroan parte hartzeko. 2019ko urtarrilean hasi eta 2020ko abenduan amaituko da aipatu bi urteko formazioa. Aurretik prestatu duten sentsibilizazio ikastarorako izena emateko epea, berriz, ireki dute dagoeneko.

Informazio gehiago www2.uned.es webgunean eskura daiteke, edota 943 769 033 zenbakira deituta nahiz mberriozabal@bergara.uned.es-era idatzita.

'NAHASTUTAKO HAURRAK... HELDUEN NAHASMENA?' HITZALDIA BILBON MARTXOAREN 13AN

Bizkaiko Hik Hasik antolatuta, martxoaren 13an Alvaro Beñaran psikomotrizista eta terapeutak hitzaldia eskainiko du Bilboko Harrobia Lanbide Heziketako ikastolan (Harrobia, plaza 4) arratsaldeko 18:00etan. Hitzaldiaren izenburua *Nahastutako haurrak... helduen nahasmena?* izango da. Besteak beste, "nahasmena" erakutsi ohi duten haurren aurrean helduek zer-nolako jokabideak hartzen dituzten eta horretan guztian jokoan zer sartzen den azalduko du Beñaran formatzaileak.

Hitzaldia doan eskainiko bada ere, plazak mugatuak direnez, parte hartu nahi duenak izena eman behar du www.hikhasi.eus webgunean.

HELDUAREN ROLA AZTERTZEKO JARDUNALDIAK EGINGO DIRA BIZILORE ESKOLAN

Bizilore eskola aktiboak antolatuta, Alvaro Beñaranek eskainiko duen *Helduaren rola. Ez dago haurraren garapenik heldurik gabe* jardunaldiak egingo dira martxoaren 10ean eta 11n Bizilore eskola aktiboan, Azkoitian.

Informazioa eta izen-ematea: formazioa@bizilore.eus helbidean.



Haurren garapena haren barnean gertatzen diren transformazio multzo gisa definitzen du “Garapenaren Antolatzaileak” izeneko teoriak. Transformazio horien bidez, umeak hainbat kompetentzia eskuratzen dituela dio, hala, gero eta autonomia handiagoa eskuratuz joan dadin. Teoria horrek haurren garapenaren oinarri diren bost antolatzailez hitz egiten du: atxikimendua, komunikazioa, esplorazioa, postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa. Horren guztiaren inguruan hitz egin zuten Myrtha Chokler psikomotrizistak eta Itziar Arregi eta Eider Salegi HUHEZIKo irakasle eta ikerlariek, Hik Hasik joan den udazkenean 0-3 adin bitarteko hezitzaileei zuzenduta antolatu zituen jardunaldietan. Han jorratutakoa jaso da erreportaje honetan.

* Azaleko argazkia eta erreportaje honetako umeen argazkiak Arbizuko Kattuka haur-eskolakoak dira.

GAIA:

HAURRAREN GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

Atxikimendua, esplorazioa, komunikazioa, postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa

Maiz hitz egiten da haurren garapenaz; baina zeri buruz ari gara hitz hori darabilgunean? Eta nola antzeman ume bat bilakatzen ari ote den eta aurrera ote doan? Zein dira haurra garatzen ari dela adierazten duten seinaleak? Nola joaten da ume bat bere burua antolatzen eta autonomiarako bidea egiten?

Hori guztia esplikatzeko, bada bide luzea egin duen teoria bat: garapenaren antolatzaileen teoria, hain zuzen, beste hainbat teoriatik eta praktikatik edanez sortua, eta hamaika pentsalariren ekarpenak jaso dituen. Teoria horrek haurren garapenaren oinarri diren bost antolatzailez hitz egiten du: atxikimendua, komunikazioa, esplorazioa, postura-segurtasuna, eta ordena sinbolikoa. Haurren garapena haren barnean gertatzen diren transformazioen multzo bat dela dio, eta, transformazio horien bidez, umeak hainbat konpetentzia eskuratzen dituela, subjektu hori gero eta autonomia handiagoa eskuratuz joan dadin.

Gai horren gainean hitz egin zuten Myrtha Chokler psikomotrizista argentinarra eta Itziar Arregi eta Eider Salegi HUHEZIKo irakasle eta ikertzaileek, Hik Hasik joan den udazkenean 0-3 adin bitarteko hezitzaileei zuzenduta antolatu zituen jardunaldietan. Modu teorikoan mintzatu zen lehena, Kurt Lewin-i erreferentzia eginez, eta zenbait gauza ulertzeko teoria on bat baino ezer praktikoagorik ez dagoela



argudiatuta. Arregik eta Salegik, berriz, modu praktikoa-goan jardun zuten, garapenaren antolatzaileen inguruko teoria eta eduki guztiak Euskal Herriko haur-eskoletako eguneroko praktikara ekarriz, eta gelako jardunean zein forma eta itxura hartzen duten ikusiz.

Barne-transformazio konplexuak, garapenaren oinarri

Zuzenean garapenaren antolatzaileez solasean hasi aurretik, haurtzaroaren funtsaz hitz egin zuen Choklerrek. Helduaren eta haurren arteko harreman sendoa azpimarratu

GAIA:

HAURRAREN GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

Atxikimendua, esplorazioa, komunikazioa,
postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa

zuen. Psikomotrizistaren esanetan, haurrarekin dagoen helduaren egiteko nagusia ume horri sostengua ematea, babesa eskaintzea eta lagun egitea da; berarekin egotea, alegia, goxotasuna eta afektua adieraziz, horretarako kontaktu fisikoa erabiliz edota erabili gabe; “Segurtasun emozionalaz eta afektiboaz ari naiz, presentzia indartsu horretaz, umea ukitu gabe ere transmititu daitekeen horretaz”. Oinarrizkoa da hori ulertzea, adituaren aburuz, funtsean, garapenaren antolatzaileen teoriak oso prozesu konplexua hartzen duelako bere baitan, eta hemen eta orain egiten denak, umeekin etxeetan zein haur-eskoletan edota kalean helduak uneoro duen jokabideak, alegia, zerikusi zuzena duelako haur horren geroan.

Haurraren barnean gertatzen diren transformazio konplexuekin lotzen du garapena Choklerrek, eta dio umeak konpetentziak eskura ditzan beharrezkoak direla barne-erlaketak horiek. Zer dira, baina, konpetentziak? Choklerrentzat, gaitasunak baino zerbait gehiago dira: “Zerbaitetan konpetentea izateak esan nahi du aukeratzeko jakitea, bereizteko gai izatea, ulertzeko eta aurreikusteko gauza izatea; eta, batez ere, zerbait egin edo ez egin

erabakitzekeo kapaz izatea, bai eta noiz egin, nola egin, noiz arte egin... erabakitzekeo gauza izatea ere”. Beraz, psikomotrizistak dioenez, *konpetentzia* kontzeptuari hertsiki loturik ageri da beste kontzeptu bat ere: subjektua, hain zuzen. Izan ere, garapenaren antolatzaileen teoriak premisa jakin bati erantzuten dio: haurra subjektu aktiboa da jaiotzatik. Haurra ez da etorkizunean izango den norbait, baizik eta, jaiotze hutsagatik, bada nor; ekintza-subjektua da, eta ez erreakzio-subjektua soilik. Gainera, Choklerrek azpimarratzen duenez, mundura sortzen den unetik, umeak autonomiarako joera osoa dakar, sorburuan muturreko dependetzia edukitzeak ez baitu esan nahi absolutuki mendekoa denik: “Autonomia gutxi izateak ez du esan nahi batere autonomiarik ez duenik. Ezer ez da ezerezetik sortzen, eta horrek esan nahi du haurrak berez dakartzala autonomiaren ernamuinak, eta jaiotzen den unetik beretik antzematen direla autonomia horren pujak. Hori bai, helduek eta inguruneko baldintzek autonomia horren garapena bultzatzen dezakete, edota oztopatu. Umeak pixkanaka autonomia handiagoa eskura dezan, baldintza zehatz batzuk behar ditu, eta horiek dira garapenaren antolatzaileen teoriak lantzen dituenak”.



GAIA: GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

Autonomiarantz egiten den bide hori pertsona izateko prozesu gisa definitzen du Choklerrek; heltzen joateko egiten diren eraldaketen multzoa litzateke, eta oinarri hori 0-3 adin-tartean ezartzen da. Aro horretan eratzen eta finkatzen baita pertsonaren nortasunaren funtsa. Hala dio adituak: “Gero, bere nortasuna garatuz joango da bizitzan zehar, baina adin-tarte horretan eraiki duen horretan oinarrituta. Norbera izatearen sentimenduaren muina lehen urteetako esperientzia horien gainean egituratzen baita”. Hark dionez, nortasun edo norberaren identitate horren egituraketaren adierazle nagusia *NI*aren agerpena izan ohi da, norbera besteengandik bereizteko ahalmena, alegia. Prozesu hori nola egiten du, baina, haurrak? Bide horretan, zer bizipen izaten ditu? Zer esperientzia? Nola barneratzen du ingurukoa? Zein dira horretarako gakoak? “*NI*aren kontzientziak itxiera ematen dio norberaren batasunari, unitate oso gisa ikusten baitu haurrak bere burua. Bera den hori *NI* gisa izendatzeko gaitasunaz ari naiz. Eta, *ZUk NI* esaten duzunean, *ZU*taz ari zarela ohartzeaz, eta ez *Nitaz*; eta, aldiz, *ZUk ZU* esaten duzunean, *NI*taz ari zarela”. Jean Piagetek dioten moduan, prozesu horrek sekulako integrazioa eta itzulgarritasuna eskatzen ditu, psikomotrizistaren hitzetan: “*NI*aren kontzientziak proiektatzeko gaitasuna eskatzen du; hau da, haurrak barruan duen hori kanpora ateratzen du. Baina zerbait proiektatu eta kanpora atera ahal izateko, barruan eduki behar du aurrez, eraren batera edo bestera konfiguratuta. Aldiz, haurrak bere buruaz hirugarren pertsonan hitz egiten duenean, alegia, ‘Paulok nahi du’ esanez berak nahi duen zerbaiti egiten badio erreferentzia, esan nahi du haren *NI* horri nolabaiteko erreferentzia ambiguo bat egiten diola, oraindik erabat konfiguratu gabe daukalako”.

Baina, Choklerrek ohartarazi duenez, pertsona-izaeraren sendotasunaren kontzientzia hori, *NI*aren jabetasuna hori, alegia, ez da egun batetik bestera egiten, ez eta hilabete batetik bestera ere; aitzitik, oso prozesu luze baten emaitza da. “Artean bi urterekin edota bi urte eta erdierekin, bere burua bilatuko du ispiluan, eta jakingo du bera dela han islatuta ikusten duena; baina, aldi berean, duda egingo du, eta ispiluan ikusten duen ume hori ukitzera joango da”. Izan ere, haurrak prozesu luze bat egiten du, bere buruan duen segurtasun hori finkatu arte. Horren beste erakusle bat izan daitezke mozorroak jantzi eta kendu umeak egiten dituen saiakerak ere, Choklerrek adierazten duenez. “Arropa bat jantzen du, edota txapel bat... Proban jartzen du bere burua, ikusteko zenbat aldatzen den, zenbateraino jarraitzen duen *NI* izaten, nahiz eta mozorroa jarrita bere itxura aldatu. Esan nahi dudana

da norberarekiko segurtasun hori ez datorrela emana, baizik eta haurrak aldi oro ezbaian jartzen duen zerbait dela, etengabe probatzen duen zerbait. Haurrak une oro bilatzen du bere buruarekiko segurtasun hori sendotzea”.

Prozesu horretan, heldua da haurrari segurtasun emozionala eta erreferentzia-puntuak eskaintzen dizkiona. Horren adierazle izan daiteke bere *NI*aren eraikuntzan lorpenak egiten eta erronkak gainditzen doan umeak helduari begiratzeko duen modua; ez dio begiratzen haren onarpena bilatzeko edota txalo jo diezaion, segurtasuna ematen dion heldu horrekin bere lorpena eta gainditu duen erronka horrek eragin dion poza partekatu nahi dituelako baizik”. Hortaz, Choklerrek azaldutakoaren ildotik, haurtzaroaren ezaugarri nagusia da psikismoa, eta *NI*a eta nortasuna eratzen eta egituratzen dira.

Plano praktikoa zein teorikoa, bietan eragiten

Atxikimendua, esplorazioa, komunikazioa, postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa. Horiexek dira haurraren garapenaren bost antolatzaileak. Berorien inguruan teoria oso bat egituratu den arren, antolatzaile horiek zein diren jakite hutsak ere lagundu dezake eguneroko praktikan. Izan ere, Choklerrek dioenez, garapenaren antolatzaileek bi planotan eragiten dute, praktikoa zein teorikoa, hau da, errealean nahiz intelektualean. “Beraz, nik haurraren garapena erraztu nahi badut, eta umeari hazten lagundu nahi badiot, arreta jartzeko moduko eredu bat eskaintzen dit garapenaren antolatzaileen teoriak, umeari aurrera egiteko balio dioten elementu horiek zein diren adierazten baitit une bakoitzean; eta, horren arabera, aukera ematen dit esku hartzeko estrategiak diseinatzeko”.

Garapenaren antolatzaileetako bat **ordena sinbolikoa** da. Horrek esan nahi du gizarte bakoitzeko kulturak bere irudikapen sozialak, sinesmenak, mitoak, ideologiak, jakintzak, balioak... dituela, eta horiek guztiak eragin zuzena dutela haurraren gain. Adibide bat jartzen du Choklerrek: “Esate baterako, haurra jaio den errealtate horretan, zer esanahi dute maskulinoak eta femeninoak? Zer dago baimenduta, eta zer, debekatuta? Edo nola eramaten dira haurrak? Bizkarrean? Organ? Zapian bilduta? Lotuta edukitzen dira? Haurrek parte hartzeko aukerarik badute?”. Psikomotrizistak dioenez, jaio den kulturak forma ematen dio haurrari, eta osatu egiten du, ume horrek kultura hori barneratu egiten duelako, eta haren barne-egituraren parte izatera igarotzen delako.

GAIA:

HAURRAREN GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

Atxikimendua, esplorazioa, komunikazioa, postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa

Atxikimendua da garapenaren beste antolatzaile bat. John Bowlby-rena da atxikimenduaren teoria, baina berau Konrad Lorenz-en aurkikuntza batean oinarritu zen. Hark probatu zuen haurrengan badela elikatua izatea baino gauza garrantzitsuago bat: segurtasuna, hain zuzen; eta segurtasuna zuzenean lotzen zaie kontaktuari eta azalari. Jabetu ziren jatea eta elikadura-beharrak aseta izatea baino garrantzitsuagoa dela umearentzat helduarekin afektuzko harremana edukitzea. Choklerrek adierazten duenez, haur jaioberriak baditu hainbat premia, eta helduaren egitekoa izango da horiek asetzea: “Haurrari jaten eman behar zaio; garbitu egin behar da, eta jantzi... Baina ez hori bakarrik; beste ezeren gainera, haurrari segurtasun afektiboa eman behar zaio, horixe delako umearen premia oinarritzkoena”. Adituak eranstean duenez, haurrak nahiko segurtasun emozional eta afektibo ez badauka, ez da mundura irekiko, eta beldurra sentituko du errealitate ezezagunen aurrean. Aldiz, nahiko segurtasun badu, esperientzia berrietarako gogoia izango du, eta plazerez biziko ditu esperientzia horiek.

Helduak une oro, eguneko 24 orduetan, haurrekin duen kalitatezko harremanaren bidez lortzen da segurtasun afektiboa —jaten ematen zaionean, loarazten denean, pixoihala aldatzen zaionean, garbitzen denean...—. Choklerren iritziz, haurraren garapen osasuntsurako funtsezko baldintza da haurrak helduaren atxikimendu segurua eraikitzea. Honela dio: “Egiaz, robot batek eman ahal izango lioke haurrari jaten, jantzi ahal izango luke, edota pixoihala aldatu ahal izango lioke; baina, egiaz, egoera berri bakoitzean behar du segurtasun afektibo hori, errealitatearekin egiten duen kontaktu bakoitzean, ezagutu nahi duen gauza berri baten aurrean dagoen bakoitzean. Haurrak sekulako grina sentitzen duelako ezagutzeko, eta, ondo bidean, irekita egongo delako esperientzia berrietara. Baina, grina horrekin batera, beldurra ere sentitzen du haurrak. Eta beldurra jakin-mina baino handiagoa bada, itxi egiten da haurra, alde egiten du, bere barnean gordetzen da...”.

Haurrak, jaio orduko, elkarbizitzarako espazio bat eraikitzen du helduarekin. Hasieran, fusio-espazioa izango da, hau da, haurrak ez du beraren eta helduaren artean bereizketarik egingo. Baina, pixkanaka, segurtasun afektibo eta emozionalari esker eta bizitzen doan esperientziei esker, helduarengandik bereizten hasiko da. Horixe da, hain zuzen, heltze- edo garatze-prozesua, Choklerrek azaltzen duenez. “Haurra bera da heltzeko gaitasuna duena. Lehenik helduarengandik urrutiratzen dena, eta ondoren

itzultzen dena; urrutiratu eta itzuli, behin eta berriz. Espazio hori, edo urrutiratze horretan sortzen den hutsunea, aurrez barneratu dituen irudiekin eta errepresentazioekin betetzen du, eta bestearen sostenguak ematen dion plazarekin. Horrexegatik dauka helduarengandik aldentzeko gaitasuna. Haurrak kanpoan zerbait eraiki dezan, aurrez barruan eraikita eduki behar du”.

Hortaz, helduarengandik banatzeko eta urrutiratzeko prozesu horretan, beharrezkoa da aurrez haurrak heldu hori eta haren arrastoak barneratu izana. Haurra gai den neurrian zaintzako uneak helduaren eta haurraren artean partekatzen badira —janzteko unea, jatekoa edo pixoihala aldatzekoa—, haren parte-hartzea bilatzen bada, haurra ekintza horiek barneratzen joango da pixkanaka, eta, denborarekin, berak bakarrik egin nahi izango ditu. “Jarduera horietan haurrak plazera sentitzen badu, berriz ere egoera hori bizi nahi izango du; bestearekin partekatu nahi izango du, eta plazera ematen dioten jarduera horien sekuentzia nolakoa den ikusi nahi izango du. Hala, helduak haurrekin duen kontaktu horretan uzten dituen arrastoen bidez, gutxika, barnean sartuko du heldu hori. Eta horrek bi rol jokatzeko ahalbidetuko dio: zamarraren mahuka besoan sartu dion helduarena, eta helduak hori egin dezan besoa luzatu duen haurrena. Ondorioz, ekintza hori berak bakarrik egin ahal izango du denborarekin; autonomoa izatearen plazera bizi ahal izango du, eta ekintza hori berak bakarrik egiteko eskatuko du, ‘nik bakarrik’ esanez”. Izan ere, autonomoa izateak heldua barnean sartzea esan nahi du, hau da, sostengua eta segurtasuna eskaini dizkion beste hori norberaren baitan integratzea. Hau da, kontua ez da kanpo-gaitasun bat ikastea (jantzen ikastea, adibidez), baizik eta bestea —haurra jantzi duen heldua— barnean sartzea.

Hastapenean, komunikazioa gorputzezkoa da

Jaiotzen den unean bertan jasotzen ditu umeak helduaren begirada, irribarrea, azalaren kontaktua... Eta horixe da umeak bestearekiko daukan lehen esperientzia. Nahiz eta hasieran norberaren eta bestearen arteko muga oso lausoa izan, denborarekin, antolatzen joango da bestearekin batera izateko modu hori. Eta hortxe agertzen da **komunikazioa**, garapenaren hirugarren antolatzailea. Choklerrek oroitarazten duenez, hastapenean, komunikazioa gorputzezkoa da, eta gorputzaren tonuak eta emozioak hartzen dute garrantzia: “Henry Wallonek ondo zioenez, tonua eta emozioa txanpon beraren bi alderdiak

GAIA: GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

dira. Tentsioa, lasaitasuna, plazera, sosegua... hori guztia transmititzen da tonuaren bidez; helduaren adierazpide bat da tonua. Umeak, aldiz, ez du ezer adierazten; umeak emozioa bizi egiten du. Eta heldua izaten da umearen tonu muskular horri, edo begi ireki horiei, edo alerta-egoera horri hitza jartzen diona. Beste era batera esanda: helduak kodifikatzen du umeak bizi duena eta sentitzen duena”. Baina, Choklerrek ohartarazten duenez, umeari begiratuko dion heldurik ez badago, umearen seinale horiek kodifikatuko dituen eta zentzua emango dien heldurik ez bada, haurrak oso modu lausoan biziko ditu bere mugimenduak, bere emozioak, bere plazera eta desplazera, bere beldurra...

Beraz, haurraren eta helduaren arteko komunikazioan, hasieran, gorputzaren bidezko kontaktua da adierazpide nagusia, hor bizi direlako emozioak, eta horren bidez transmititzen direlako lasaitasuna, sosegua, plazera... edota ezinegona, estresa, beldurra... Choklerrek dio emozioak kutsatu egiten direla elkarren arteko lotura, ukipen edo kontaktu horren bidez: “Emozioak erantsi egiten dira; tonikoki irradiatzen dira, eta horixe dago

bestearekiko harremanaren oinarrian. Bestearekin dugun kontaktuari esker, beste horren antzeko sentipen toniko-emozionala bizitzen dugu gizakiok, eta horixe da bestearekin fusionatzen gaituena ere. Hau da, helduak bere sentipen toniko-emozionalak haurrari pasatuko dizkio, eta, hala, bataren emozioak jarraipena emango dio bestearen emozioari”. Kontua da, ordea, kontaktu edo lotura horretan bata heldua dela, eta bestea, berriz, haurra, eta, beraz, biek ez dutela rol bera jokatzeko harreman horretan. Choklerren arabera, helduaren eta haurraren arteko alde horrek laguntzen du komunikazioa eraikitzen. “Eta helduarekiko kontaktu hori aberatsagoa edo pobreagoa izan daiteke, eta, atxikimendua bezalaxe, une oroko egoeraren, izatearen eta ekintzen bidez eraikitzen da”.

Adibide bat jartzen du psikomotrizistak: “Demagun heldu bat makurtu egiten dela, besoak eta hankak irekita umeari begira jartzen dela, irribarre egiten diola... Hitzik esan gabe ere, haurrari etortzeko ari zaio esaten, gorputzaren bidez. Baina, aldi berean, umeari espazio eta denbora bat irekitzen dio, heldua adierazten ari zaion hori uler dezan eta erabaki dezan etorri nahi duen edo ez. Beraz, kasu



GAIA: HAURRAREN GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

Atxikimendua, esplorazioa, komunikazioa,
postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa



horretan, haurra subjektu gisa hautematen da, etorri nahi duen edo ez aukeratzeko gai den subjektu gisa. Etortzen ez bada, helduak argumentatu egin beharko du, eta etor dadin zergatik nahi duen adierazi beharko dio. Adibidez: ‘Orain, jan egin behar dugu’. Horren aurrean ere, haurrak baietz edo ezetz erantzun ahal izango du, eta helduak argumentatzen jarraitu beharko du. Izan ere, komunikatzeak negoziatzea, besteak nahi duenari ere leku egitea, haurrari adierazteko espazio bat ematea... esan nahi du, eta baita haren ezezkoari espazio bat ematea ere”. Choklerren iritziz, haurra nortasuna duen subjektu gisa ariko ginateke hartzen kasu horretan, eskatzen, pentsatzen, hautatzen, komunikatzen dakien subjektu gisa. Aldiz, kasu beraren aurrean, haurrari begiratu ere egin gabe, eskuetan hartu eta jatera eramanez gero, elikatu behar den objektu gisara tratatuko litzateke haurra.

Komunikazioa hasieran gorputzezkoa bada ere, haurra hazten eta heldua bere barnean sartzen doan heinean, keinu bidezko komunikazioa barneratzen joaten da, eta komunikazio-sistema sinbolikoa deritzona sortzen da hortik, linguistikoa, kasurako. Zer da, bada, hitz egitea? Hala dio Choklerrek: “Hitz egiteak esan nahi du behar beste segurtasun edukitzea barruko zerbaiti irteten

uzteko, jakinik zerbait horrek bestea ukituko duela, eta eragin egingo diola”. Eta, beraz, zer litzateke entzutea? “Behar besteko segurtasuna sentitzea bestearen aurrean irekitzeko, jakinik hark guregan zerbait mugi dezakeela, hunkitu egin gaitzakeela, eta era batera edo bestera eragin egingo digula”. Definizioa antzekoa litzateke, idaztearen eta irakurtzearen kasuetan ere. Azken batean, Choklerrek dioenez, hitz egitea, entzutea, idaztea eta irakurtzea erlazio-ekintzak dira; bestearekin lotzen edo konektatzen gaituzten ekintzak dira, erabat subjektiboak.

Ingurunea ezagutzeko, barne-motibazioa akuilu

Esplorazioa da haurraren beste alderdi bat; garapenaren antolatzaileetariko bat da hori ere. Esploratzea ez da soilik ikertzea, esperimintatzea, barneratzea... Choklerrek esplikaturakoari jarraiki, buru-eragiketa sendoak egitea eskatzen dio haurrari esplorazioak, ezagutzeko, ulertzeko eta ikasi ahal izateko. “Esate baterako, haur bat oinetako bat janzen hasten denean, lehenik eta behin, segurtasuna behar du mugimenduetan; gero, hanka bat altxatu behar du, eta oinetakoa janzen hasi. Baina esplorazio- eta ikerketa-prozesu oso bat egiten du bere barnean: oine-

GAIA: GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

takoa nola jarri, hanka zein posturatan luzatu, lehenik zer sartu... Estrategien multzo bat jartzen du martxan haurrak oinetako bat jantzi ahal izateko; problemaren ebazpen osoa egin behar du, bere buruan lehenengo, eta, ondoren, kanpoan. Oinetakoa janzten badu, akaso, txalo egingo diogu, edota ‘zeinen ondo, lortu duzu!’ esango diogu. Baina lortzen ez badu? Kasu horretan ere, esplorazioa, ikerketa, esperimantazioa, ezagutza, aktibazioa... bide ezin hobeak izango dira. Eta hori ere oso kontuan izan behar dugu helduok”.

Komunikazioa bezalaxe, esplorazioa ere haurraren barne-
tik irteten den zerbait da. Barne-bulkada bat du haurrak, ezezaguna ezagutzera bultzatzen duena, eta barne-motibazio batek eraginda hasten da esploratzen. “Haurrari ikertzeko grina ez zaio pizten nik pailazoz mozturrotuta animatzaile-lanak egiten dizkiodalako edota koloretako ez dakit zer jostailu eskuartean jarri diodalako; aitzitik, inguruko errealitatea ezagutzeko barne-premia sentitzen du haurrak, eta, horretarako, beharrezko estrategiak jarriko ditu martxan”. Izan ere, psikomotrizistak gaineratzen duenez, haurrek ez daukate soilik zerbait biguna, gogorra, gorria, laranja... dela jakin beharra; zerbait horren zergatia ulertzeko premia ere badute, eta, gainera, oso argi adierazten dute sentitzen duten hori. “Beste ezeren gainetik, umeez mundua nolakoa den eta mundu horretan zer gertatzen den konprenitu nahi dute, eta, horretarako, beharrezkoak diren mekanismoak jartzen dituzte martxan”.

Bosgarren eta azken garapenaren antolatzailea **postura-segurtasuna** da, zuzenean motrizitatearekin loturik dagoen antolatzailea. Choklerrek azaltzen duenez, umearen barneko oreka-sentsazioarekin dauka zerikusia, eta baita autorregulazioarekin ere. Emmi Piklerrek aurkitu zuen programa genetiko fisiologikoaren garapenean du oinarria. Horren arabera, haur guztiek programa jakin bat igarotzen dute, posizio horizontaletatik bertikaletara igarotzeko, nahiz eta kanpotik inork ezer ez irakatsi. Programa hori haurraren heltze-mailan eta oreka-legeetan dago oinarrituta.

Finean, garapenaren antolatzaileak ezagutzeak eta nola funtzionatzen duten eta nola bilakatzen diren jakiteak haurra bere testuinguruan ulertzeko eta aukera profesional bat egiteko balio dezake: “Zein da aurrean daukagun subjektua? Zer konpetentzia ditu? Zer interes, desira, beldur, estrategia kognitibo, jokabide sozial... ditu?”

Ezinbestekoa da horietan arreta jartzea, haurrari falta zaion horretan tematzeko arriskua daukagulako bestela: ‘oraindik ez dabil oinez’, ‘oraindik ez daki irakurtzen’... Bata zein bestea umearen aurrean desberdin kokatzera garamatzaten jokamoldeak dira, eta begirada horren arabera aukeratuko dugu gure eredu pedagogikoa ere. Umearen gabezieta eta oraindik egiteko gauza ez den horretan oinarritzen bagara, baliteke gure eredu pedagogikoa trakziozkoa izatea, umea guk egoki ikusten dugun horretara bideratzea, alegia, aginduz, edo arrastaka, edo era batera edo bestera seduzituz. Horren atzean dagoen pentsamoldea zera da: ‘Haurrak nik esandakoa egin behar du, nik badakidalako berak zer behar duen, eta ez dakiola bururatu beste ezer egitea’. Aldiz, guk defendatzen dugun eredu pedagogikoa lorezainarena da, metafora gisa ulertuta: ereindako hazi hori eder eta oparo hazten ikustea desio duen lorezainaz ari gara. Lorezain horrek lurra aukeratzen du, hazia ereingo duen lekua, une egokia, eta hazia nahiz hortik eratorritako landarea zaindu egiten ditu, ureztatu, ongarritu; eguzkitan jartzen du, haizetik babesten du, hitz egiten dio, eta abestu... Landareak hostoetatik tira eginez hazten ez diren moduan, haurrak ere ez dira buruetatik tira eginda hazten eta hezten”.



GAIA:

HAURRAREN GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

Atxikimendua, esplorazioa, komunikazioa, postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa

Haurrari begiratzeko modu bat

Nik hezitzaile bezala nola ikusten dut haurra? Zein betaurrekorekin begiratzen diot?”, galdera horiek planteatuz eman zioten hasiera Itziar Arregi eta Eider Salegi Mondragon Unibertsitateko Hazitegi iker-taldeko kideek hitzaldiari. Myrtha Choklerrek modu teorikoan azaldutakoa Euskal Herriko haur-eskoletako praktikara ekartzen ahalegindu ziren, eta garapenaren antolatzaile horiek oinarri hartuta — atxikimendua, esplorazioa, komunikazioa, postura-segurtasuna eta ordena sinbolikoa —, eguneroko jardunean izaten diren bizipen eta gertaera zehatzen gainean gogoeta egin zuten.

Baina beste ezeren aurretik, ezinbestekoa iruditu zitzaion norbere haurrarekiko begirada horren gainean hausnartzea. “Ez dugu ahaztu behar hezitzaileok izugarritzko inpaktua eragiten dugula haurraren gainean. Beraz, segun eta nola begiratzen dugun haur hori, begirada horren arabera izango da gure esku-hartzea”, zehaztu zuen Salegik, eta gaineratu zuen hezitzaileen erronka ume bakoitzaren partikulartasunetara iristea izan beharko litzatekeela, haur bakoitzaren konplexutasuna ulertzea eta haien barne-munduarekin konektatzea.

Abiapuntu gisara, era berean, Salegik eta Arregik azpimarratu nahi izan zuten garapenaren antolatzaileak ume guztietan antzematen direla eta denengan dutela eragina, baina ez une berean eta ez iraupen berberarekin, ezta forma berberarekin ere. “Horregatik da horren garrantzitsua ume bakoitzarengana iristea, benetan denen ongizatea eragin nahi badugu”. Jarraian, garapenaren antolatzaile bakoitzeko hiru adibide erreal jarri zituzten gogoetarako, Euskal Herriko haur-eskoletako eguneroko jardunetik hartuak, eta horien gainean gogoeta eginez hainbat ondorio atera zituzten.

1. Atxikimendua: umeak haur-eskoletan geratu behar direnez, gurasoengandik bereizten direnean maiz aktibatu ohi da atxikimendua, baina garapenaren antolatzaile honen gainean Salegik eta Arregik azpimarratu nahi izan zuten moduan, atxikimendu jokamoldea ez da erreferentziatzeko helduengandik banatzerako unean soilik aktibatzen, eta negarraz gain seinale asko egon daitezke atxikimenduaren adierazle direnak:

hurbiltasunik eza, irribarrea, begi kontaktua kentzea, atzamarra txupatzea, begirada galdua izatea, esplorazio baxua... “Akaso negar egiteari utz diezaioke umeak, baina hori ez da nahikoa informazio haurrak atxikimendu jokamoldea desaktibatu duela ziurtatzeko, balitekeelako artean ume hori jolasean hasi ezinik geratzea edota hezitzaileari katigatuta egotea, etab.”. Beraz, Hazitegiko ikerlariak azpimarratzen dutenez, garbi eduki behar da atxikimendua haur guztien beharra dela, ez soilik negar egiten dutenena, eta zentzu horretan, garrantzitsua litzateke umearen seinale guztiei erreparatzea eta horiei erantzutea agertzen diren bakoitzean, bai kantitatez eta bai kalitatez. Eta hori noiz arte? Bada, seguru sentitzen dela adierazten duten seinaleak igortzen hasten den arte. Adibidez, esploratzen hasten den arte. “Hezitzaileok segurtasun eta ongizate emozionalaren iturri garenean eta umeen beharretara egokitzen diren erantzunak eskaintzen ditugunean, segur aski umearen eta hezitzaile horren arteko harremana eta atxikimendua ziurrak izango dira. Eta hori etengabe buruan eduki behar dugun zerbait da”.

2. Komunikazioa: garapenaren antolatzaile honi dagokionez, Arregik eta Salegik nabarmendu zuten harremanetan oinarritutako komunikazio esanguratsu bat eraikitzeko elementu garrantzitsu bat konfiantza dela. “Hortaz, guk zer eskaintzen diogu haurrari berak gudan konfiantza izan dezan?”. 0-3 adin tartean kontaktu fisikoak hartzen duen garrantzia kontuan izan behar da galdera horri erantzuteko orduan, Hazitegiko ikerlarien arabera. Batetik, gorputzaren presentzia beharrezkoa da adin tarte horretan, haurrek oraindik hitzik ez dutelako; eta, bestetik, oso garrantzizkoa da komunikatzerako orduan begiradak jokatzen duen papera ere kontuan izatea. Azkenik, Arregi eta Salegiren aburuz, komunikazioari dagokionez, ikuspegi profesional batetik landu beharreko beste alderdi bat ere bada: sentikortasuna, hain zuzen. “Ez da nahikoa hezitzailea pertsona sentsiblea izatearekin, sentikorra ere izan behar da, eta sentikortasunak beste inplikazio bat eskatzen du. Hori gure eguneroko lanean ezinbesteko tresna gisa barneratu behar dugu, sentikortasunak

GAIA: GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK

harremanetan sendotasun eta segurtasun hori garatzea ahalbidetzen duelako eta horrek ezinbestean haurra ongizatean kokatzen duelako. Badakigu hezitzaileak haurrari erantzun sentikor jarraituak eskaintzen dizkionean hainbat testuingurutan, oinarri seguru bat eskaintzen ari zaiola, eta hori ezinbestekoa da haurraren garapen sozio-emozional eta kognitibo egoki baterako”.



- 3. Esplorazioa:** haurra ondo dagoela adierazten duen adierazle bat da esplorazioa, Arregiren eta Salegiren hitzetan. Beraz, ikerlariek euren behaketan ondorioztatu dutenez, garrantzitsua da eskolatan hurrek esploratzen duten edo ez ikustea. Esplorazioak ingurua eta mundua ezagutzeko balio dio haurrari, eta, beraz, garatzeko. Berez aktibatzen da, helduaren esku-hartze beharrik gabe. Hori bai, esplorazioa aktiba dadin beste behar guztiak aseta izan behar ditu haurrak, eta beste ezeren gainetik seguru sentitu behar du. Aldiz, arriskua ikusten badu, beldurrez sentitzen bada, logura bada, gosea bada... esplorazioa desaktibatu egiten da. Era berean, testuinguruak eta hezitzailearen jarrerak ere haurrari esploraziorako bidea ireki edo oztopatu diezaioketela nabarmentzen dute HUHEZIKo irakasleek, eta zentzu horretan, hausnarketarako hainbat galdera planteatzen dituzte: “Hezitzaile bezala zer eskaintzen diegu haurrei eta zer ez? Hausnartzen dugu horren gainean? Nolakoa da nire presentzia? Diseinatzen ditut esploratzeko aukerak aurrez edo momentuan bertan eskaintzen dizkiet aukera horiek? Momentu konkretu baterako diseinatzen dut esplorazioa, edo egun osoa daukat presente diseinatzerako orduan? Haurra esploratzen ari denean, zein da nire rola? Nola zaindu askatasunaren eta sarkortasunaren arteko muga fin hori?...”.

- 4. Postura-segurtasuna:** haurraren garapenean, apurka, gorputzaren autonomia hartzen joatea esan nahi du ziurtasun posturalak, eta Arregiren eta Salegiren irudiko, mugimenduan askatasuna irabazten joatea haurraren garapenaren adierazle garrantzitsu bat da. “Mugimenduak eta gorputzak haurraren ziurtasunaren

berri ematen digute. Umea seguru dagoenean aldaketei aurre egiten saiatzen da. Poliki-poliki arrisku txikiak zuhertasunez gainditzen ditu”. Edozein kasutan, ikerlariek gaineratzen dutenez, oso garrantzitsua da kontuan izatea haur bakoitzak bere erritmoa duela eta guztiak ez dutela momentu berean gauza bera lortzen. Garapenaren antolatzaile honi loturik, Arregik eta Salegik ateratzen duten ondorio nagusia da, hurrek hezitzailearen begirada behar dutela, helduaren segurtasuna eta sentitzea erreferentziatzeko nagusi horiek berarengan konfiantza dutela, horrela ausartuko delako eguneroko erronka txikiei aurre egiten.

- 5. Ordena sinbolikoa:** garapenaren antolatzaile honek jendartearen eta munduaren antolaketaren irudi mentala eraikitzeari egiten dio erreferentzia. Hazitegiko kideek azaldu bezala, eskola-ereduak eragin zuzena du haurrak egiten duen ordena sinbolikoaren eraikuntza horretan: “Ez dugu ahaztu behar gu hezitzaile garelara, eta transmisore ere bai, eta transmititzen dugun horren jabe izan behar dugula”. Zentzu horretan, hezitzaileok harremanen kudeatzaile bihurtzea proposatzen dute Arregik eta Salegik, bai hurrekin eta baita familiekin ere, “lan handia egin behar dugu familiekin modu natural batean konfiantzazko harremanak eraikitzeke”. Izan ere, azken batean, hurrek euren inguruko helduekin dituzten harremanak eta heldu horiek elkarren artean dituztenak izango direlako eraikiko duten ordena sinbolikoaren iturri.



“Metodologia aktiboak eta berrikuntza bultzatzea da hobekuntzarako gakoa”

ELKARRIZKETA:

MARIA

SOLANA

NAFARROAKO HEZKUNTZA KONTSEILARIA

Jardunbidez kazetaria, 2015ko maiatzean Geroa Bai alderditik parlamentari hautatu zuten nafarrek Maria Solana (Iruñea, 1975). 2016ko irailean, berriz, eserleku hori utzi eta Gobernura egin zuen jauzi bozeramaile lanetara. 2017ko apirilaren 12az geroztik Hezkuntza Kontseilari ere bada. Jose Luis Mendozak dimisioa eman ostean hartu zuen kargua, eta hark egindako lanari bultzada ematea eta Hezkuntza Departamentuaren jarduna

gizarteratzea izan da bere egiteko nagusia ia urtebete honetan. Hiru plan nagusi jarri ditu martxan: aniztasuna artatzeko plana, Lanbide Heziketako plana eta hezkidetzaren plana. Plan horiek aurrera eramateko irakasleen formazioan inbertsio handia ari da egiten Hezkuntza Departamentua, baita metodologia aktiboak eskoletan txertatzeko ere: “XXI. mendeko eskola behar dugu eta ez daukagu. Gu jo eta ke norabide horretan ari gara lanean”.

Jose Luis Mendoza aurreko Hezkuntza kontseilariak dimisioa eman ostean hartu zenuen kargu berria, baina aurrez ere Hezkuntza Politikaren ezagutza bazenuen. Gobernu honentzat eztabaida handienetakoak eragiten ari den Departamentua da. Orain arteko ibilbidearen zer-nolako balorazioa egiten duzu zuk?

Atzera begiratuta, akaso, esan liteke kostatuta egin zitzaigula abiatzea. Gure nahiak eta planak martxan jartzeak denbora eman digu. Kontua da lehen urtea oso konplikatu izan zela. Uste dut xede politikoarekin hartu zela Departamentu hau jomugan. Denek egiten zuten hezkuntzaren kontra. Eta Departamentu honek edozein erabaki hartzen zuelarik ere, edo ematen zuen edozein urratsen aurrean, sekulako zalaparta sortzen zen. Ofentsiba politiko horretatik abiatuta, maila sozialean ere hezkuntza gaiekin lotuta, nolabaiteko amorrua hasi ginen sumatzen. PAI (Ingelesa Ikasteko Programa), D ereduaren zabalpena, edo LEPa bera... iskanbilarako motibo ziren. Ondorioz, neurri handi batean, Departamentua blokeatuta geratu zen. Horrek suposatu zuen gainontzeko Departamentuak baino antzerapen pixka bat handiagoarekin ibiltzea.

Zarata hori guztia pixka bat isilaraztea lortu zenean, hemen zirenek aukera izan zuten lanean hasteko. Bitartean, Departamentu barruan ere aldaketa asko izan zen. Duela urte eta erdi ikuspegi berri bat eman zitzaion: bi zuzendaritza nagusiak aldatu ziren eta lan-taldea ere berri egin zen. Hortik aitzin hurrengo aldaketa potoloa kontseilaria aldatzea izan zen. Orain beteko da urtea, apirilaren 12an, hain zuzen, ni izendatu nindutenetik.

Orduantxe etorri nintzen ni etxe honetara eta lanerako giro zail samarra topatu nuen. Jendea haserre zegoen eta hainbat gaitan amore emana zuen. Giro hori atzera ere bere onera ekartzea izan da urte honetan egin dugun lanik handienetako bat. Azken batean, ekipo kohesionatu eta sendo bat behar duzu, lan-talde koordinatu bat eta zentzu horretan lan handia egin dugu: jendea motibatzen eta bakoitzari



bere tarte ematen ahalegindu gara. Horrez gain, isilean egiten ari ziren lan guztia plazaratzea izan da gure beste erronketako bat eta horrek aldaketa handia ekarri du Departamentura. Orain ikusten dut taldea lanean zentratuago eta ekintzaileago dagoela. Eta horrekin pozik nago.

Mendozak jorratutako bidean jarraituko zenuela adierazi zenuen kargua hartzean, zein izan dira ia urtebete honetan heldu behar izan diezun afera nagusi horiek?

Gauza asko ari gara aurrera ateratzen. Ni ailegatu nintzenerako lan handia zen egina, baina gauza askok azken bultzada bat behar zuten, azken buelta bat eman behar zitzaion osatu eta plazara ateratzeko. Eta horretan hasi ginen buru-belarri.

Ni sartu nintzenetik hiru plan inportante abiatu dira: bata aniztasuna artatzeko plana, bestea Lanbide Heziketako plana, eta hirugarrena hezikidetzaren plana. Hiru plan horiek oso ongi markatzen dute zein den Departamentuaren politika, zeintzuk

gure helburuak, erronkak eta lehen-tasunak.

Hiru plan horietako bakoitzaren zertzelada orokor batzuk eman ditzakezu?

Ezer baino lehen, esan nahiko nuke hiru plan horiek oraindik ere zabalik daudela. Borradoreak dira, eta partaidetza prozesuetan ari dira ekarpenak egiten, baina oso aurrerata daude dagoeneko. Gainera, plan horietan aurreikusten diren neurri asko eta asko jada indarrean daude eskoletan.

Hori esanda, adibidez, Lanbide Heziketan orain arte egin ez den zer-bait egin da. Nafarroak duen estrategia adimentsuarekin lotuta dagoen planifikazio bat egin dugu, eta epe ertainera eta luzera begira komunitate honen garapenerako ildoak zein diren finkatu dugu bertan. Lanbide Heziketaren arloan aitzinera begirako esparru nagusiak zein izango diren ikusi nahi izan dugu, jakiteko zer motatako eskaintza egin behar dugun.

Neotan, Lanbide Heziketan, inoiz baino eskaintza handiagoa dago Nafarroan eta euskaraz ikasteko ere inoiz baino aukera handiagoa. Euskarazko eskaintza % 6 hazi da; eta, oro har, Lanbide Heziketakoa % 7. Historian Nafarroan izan den igoerarik handiena da. Inoiz baino plaza gehiago dago, inoiz baino titulazio gehiago aukeran, eta inoiz baino eskaintza handiagoa euskaraz.

Hori Lanbide Heziketari dagokionez, eta hezkidetzaren esparruan, zertan diharduzue?

Orain arte saiakeraren batzuk izanek ziren Berdintasun Plan moduko- ren batzuk martxan jartzeko, baina hemengo kutxetan gorderik geratu ziren. Gure egitekoa izan da horiek errebisatzea, eta egungo beharrak ikusita, eta Departamendu hau aurrez ere ezagutzen zuen berdintasun teknikari baten gidaritzapean, plana martxan jartzea.

Hezkidetzeta Plana egiteko, gainera, Berdintasun Institutuarekin elkarlan- nean ari gara eta baita Osasunarekin ere. Izan ere, orain dela gutxi onartu den Sexu eta Ugalketa Osasunari

buruzko Foru Dekretuaren ildoan ari gara lanean, eduki asko hortik hartuta eraman behar ditugulako gure eskoletara.

Edonola ere, ikusten genuen arlo honetan plan bat egin beharra geneukala espresuki eskoletarako. Gure asmoa da hezkidetzeta 0 urtetatik hasita lantzea. Dagoeneko material interesgarri asko ari gara sortzen, horiek ikasgeletara eramaten, eta probatzen zer-nolako harrera egiten dieten eskolako kideek: bai ttipiek, bai ertainek, bai handiek eta baita irakasleek ere.

Plan guztiek eskutik dakarte irakas- leen formazioa. Formazioan 300.000 eurotik 1.200.000 eurora pasa gara.

Plan horiek martxan jartzeko irakas- leak formatzera bideratu dituzue 1.200.000 euro horiek?

Bereziki horretara, baina baita me- todologia aktiboak eta berrikuntza bultzatzera ere, uste baitugu hori dela hobekuntzarako gakoa. Gure ikasge- letan sartu nahi dugun guztia aurrera eramateko — izan hezkidetzeta plana, aniztasunaren trataerarako plana nahiz bestelako Lanbide Heziketa bat —, ezinbestekoa da eskolaren beraren kontzeptua aldatzea. Izan ere, XXI. mendeko eskola behar dugu eta ez daukagu. Gaur egun dagoen eskola XIX. mendekoa da eta horrek ez die erantzuten ahal egungo jendar- teak dituen beharrei. Beraz, gu jo eta ke eskola aktiboaren ildoan ari gara lanean. Berrikuntza metodologikoa gure ardatzetako bat ari da izaten.

Eta, aniztasuna tratatzeko planari dagokionez, zehaztasunik ematerik baduzu?

Eskola inklusiboa da gure helburua. Ikusi dugu kasu askotan eskola ez dela inklusiboa, gizartea bera ez den bezala. Inklusioan aurrera egin ahal izateko zer behar da? Lehenik eta bat, aniztasunaren inguruko kontzeptua erro- tik aldatzea, eta ulertzea denok garel- a ezberdin. Kontua ez da batzuk ezberdinak direla. Batzuek badituzte behar jakin batzuk eta beste batzuek beste batzuk, baina ezberdinak denak gara eta arreta eman behar zaio ikasleari bere horretan. Ikaslea pro- tagonista gisa hartu eta gure zeregina

“Lanbide Heziketan inoiz baino plaza gehiago dago, inoiz baino titulazio gehiago aukeran, eta inoiz baino eskaintza handiagoa euskaraz”

“XXI. mendeko eskola behar dugu eta ez daukagu. Gaur egun dagoen eskola XIX. mendekoa da eta horrek ez die erantzuten ahal egungo jendarteak dituen beharrei. Beraz, gu jo eta ke eskola aktiboaren ildoan ari gara lanean. Berrikuntza metodologikoa gure ardatzetako bat ari da izaten”

“Berdintasuna eta ekitatea desberdinu egin behar ditugu. Kontua ez da denei gauza bera ematea, baizik eta gehiago behar duenari gehiago ematea”



ikasle bakoitzera egokitu behar dugu eta ez alderantziz.

Horrekin batera “berdintasuna” eta “ekitatea” kontzeptuak desberdindu egin behar ditugu. Kontua ez da denei gauza bera ematea, baizik eta gehiago behar duenari gehiago ematea. Konturatu gara orain arte dibertsitatea atenditzeko lan bat egiten zela, baina ez zegoen antolatuta, ez zegoen planik, ez aurreikuspenik. Zeuden baliabideak zentro denen artean berdin banatzen ziren, baina konturatu ginen batzuek askoz ere behar handiagoak zituztela beste batzuek baino. Orduan, gure ardua handienetakoa zentro bakoitzaren premiei behar bezala erantzutea izan da, gehien behar duenari gehiago emanaz.

Noski, ideala litzateke baliabide asko izatea eta denei asko ematea, eta batzuei askoz gehiago. Baina momentuan ez gaude horretan. Beraz, guztia berrantolatu behar izan da, izaera konpentsatorio batekin. Aniztasun planari erantzuteko, aurten 2 milioi euro gehiago daukagu aurrekontuan pasa den urtearekin alde-

ratuta. Baliabide ekonomikoaz ari gara, baina giza baliabideez ere bai, diru hori profesionalen kontrataziora bideratzen baita.

Horrez gain, ikasleen beharrei modu integralean erantzuteko ere lanean ari gara. Zenbait premiari ezin zaielako eskolan soilik eman irtenbidea, eta kobertura zabalago bat eman behar zaielako. Horretarako Gizarte Zerbitzuekin ere estuki lotuta egiten dugu lan.

“Zerrenda bakarraren” afera izan da gizartearen hautsak harrotu dituen gaietako bat. Badirudi sindikatuek eta hainbat eragilek eskatzen zuten zerrenda bakarra momentuz ez dela posible izango, PSNren ekimen legegilearen eta Izquierda-Ezkerraren bi bozka horien ondorioz. Zein da uneotan egoera? Aurrera begira zein da Gobernuaren asmoa?

Urte amaiera oso gogorra izan zen. Nik ez nuen imajinatzen horrelako amaiera tristerik. Lan handia egin genuen hainbestetan eragile aunitzek salatu dutena konpontzeko. Kontua

da, bi zerrendarekin, Nafarroan ez dagoela aukera berdintasunik euskaldunentzako, eta urtetan beraien eskubideak urratu egin direla. Gobernu aldaketa gertatu zen arte, aukerarik ez zegoen bi zerrendetan —gaztelaniazkoan eta euskarazkoan— aurkezteko ere. Eta, urtetan oposizio-ekin ez den arren, egin ziren aldietan gaztelaniazkoa eta euskarazkoa egun eta ordu berean izan ohi ziren. Beraz, alde aurretik irakasleek erabaki beharra zeukaten bietako zeinetan izena eman, nahiz eta bietan parte hartzeko gaitasuna eduki.

Legegintzaldiko lehen urte korapilatsu hartan, 2016rako lan eskaintza publikoa deitua zenez, Hezkuntza Departamentu berria hasi zen aztertzen oposizio-aldia zerrenda bakarraren bidez egiteko aukerarik ba ote zegoen. Bide horretan dena dezente nahastu zen eta Departamentua ohartu zen ez zegoela nahikoa denbora deialdira zerrenda bakarrarekin joateko. Edozein kasutan, behintzat bermatu zuten bi azterketak egun ezberdinetan izango zirela eta jen-

deak aukera izango zuela azterketa bi bider egiteko, batean euskarazkoa eta bestean gaztelaniazkoa. Nahiz eta hori irtenbide justua izan ez. Finean, azterketa bera bi hizkuntzatan bikoizteaz ari garelako hizketan. Eta hori da guk hasieratik salatu izan duguna. Batzuek aukera bikoitza deitu diote horri; beste batzuek, berriz, zigor bikoitz gisa izendatu dute. Eta ni bigarren horietakoa naiz. Ez dut uste zentzurik duenik gaitegi berarekin, espezialitate berebean, azterketa bera bitan eginarazteak, behin akreditatu dezakezunean hizkuntza bi, hiru edo ez dakit zenbat dakizkizula.

Lehenaz gainera, egoera okertu egin da, hortaz?

Guretat abenduaren 21ean parlamentuan onartu zen legea atzerapauso erraldoia izan da. Horrek ez du aukerarik ematen zerrenda bakarra egiteko. Are gehiago, esaten du zerrenda bi mantendu behar direla: gaztelaniazkoa eta euskarazkoa. Eta oraindik ere gehiago konplikatu du kontua, eta orain arte derrigorrezkoa ez zena –egiten ahal zenuelako azterketa nahi zenuen hizkuntzatan-, derrigorrezko bihurtu du. Alegia, lehen, adibidez, euskarazko proba edo probaren zati bat zuk egin ahal zenuen gaztelaniaz. Izan ere, jende askorentzat zaila da lortzea gaitegiak euskaraz eta baita hizkuntza batean ikasi eta azterketa bestean egitea ere. Baina, ez hori soilik; lege berri honek abiatuta, beste konplikazio berri bat sortu eta sartu da gure sisteman: legeak aurreikusten duenaren arabera, zuk derrigorrez eskola zure plaza ateratzeko erabili duzun hizkuntzan daukazu eman beharra. Orain arte ez soilik euskaratik gaztelaniara, baizik eta gaztelaniatik euskarara ere pasatzen zen jendea. Bere garaian plaza gaztelaniaz atera eta gerora euskaraz ikasi duen norbaiten kasua izan liteke, adibidez.

Kontua da okerrera egin dugula. Eta gainera, hori lege bidez jasota geratu dela. Ez dakigu aurrera begira zer gertatuko den. Errealitatea hau da eta egun ez dago gehiengo politikorik horri buelta emateko. Baina horrek ez du esan nahi gure ikuspegia aldatu denik eta justuena zerrenda bakarra

dela pentsatzen jarraitzen dugu.

PAI Ingelesa Ikasteko Programarekin ere kritiko azaldu zineten legegintzaldi hasieran. PAIren ebaluazioa egiteko asmoa erakutsi zenuten, batean martxan jarritako egitasmoa zela argudiatuta, inolako euskaririk gabe. Zertan da programa hori?

Guk askotan salatu izan dugu PAIa asmo politiko batek bultzatuta ezarri zela. PAIa geratu ez da geratu. Gobernu berriaren hasierako urte hartan ebaluatu ziren PAItik pasatako ikasle batzuk eta konparatu ziren PAIn ez dabilzan beste batzuekin. Eta ez zen alde handirik ikusten batzuen eta besteen artean. Akaso, PAIkoek ingelesaren konpetentzian bazuten maila apur bat handixeagoa.

Baina kontua zein da? Ebaluazioa PAI ezarri zen lehen urteetako ikasleekin egin zela, eta hasiera batean modu kontrolatuan ezarri zela programa: zentro gutxi batzuetan, baliabide askorekin eta modu ordenatu batean; kasik, modu pilotuan. 2013az geroztik, ordea, kontrolik gabeko zabalkundea etorri zen: prestakuntzarik gabeko irakasleekin eta nahikoa baliabiderik gabe. Eta hori sekulako nahasmena izan zen. Hortaz, horiek dira oraindik ebaluatu ez direnak, hazkunde desorbitatu horretakoak. Beraz, guk ebaluazio horiek egiten jarraituko dugu eta ikusiko dugu ea urtetik urtera alderik nabaritzen den edo ez era ordenatuan hasi zirenen eta gainerakoen artean.

Edozein kasutan, PAIk martxan jarraitzen al du?

Bai. PAI indarrean dagoen programa bat da. Hor ez da etenik egon. Besteak beste, sozialki oso onarpen handia duelako. Hori ere esan beharra dago: ingelesa aukeran badute, gurasoek hori hautatzen dute. Zeren hemen beti errua elkarri leporatuz gabilta, baina azkenean familiak dira hautaketa eta apustua egiten dutenak. Askok eta askok hori hautatu dute, baina esan beharra dago beste askok hori hautatzeko modurik ere ez dutela. Eta hori ere ez da bistatik galdu behar. Zeren ez da ereduaren kasuan bezala, bataren edo bestearen artean hauta dezakezula. Ez. Zentro batean

“Zerrenda bakarraren aferan okerrera egin dugu. Eta, gainera, hori lege bidez jasota geratu da. Ez dakigu aurrera begira zer gertatuko den. Errealitatea hau da eta egun ez dago gehiengo politikorik horri buelta emateko. Baina horrek ez du esan nahi gure ikuspegia aldatu denik eta justuena zerrenda bakarra dela pentsatzen jarraitzen dugu”

“PAIren kasuan, momentuz gure Departamentuak lehen zegoen hori ordenatu du foru lege baten bidez. Besteak beste, malgutasuna ekarri du horrek eta zentroei autonomia eman die”



PAI baldin badago, zuk ezin duzu esan PAIrik ez duzunik nahi. Zentro batean PAI baldin badago, zentro guztiarentzat eta ikasle guztiarentzat da, programa bat delako eta ez eredu linguistiko bat.

PAIren kasuan ere, momentuz, gure Departamentuak lehen zegoen hori ordenatu du foru lege batean bidez. Besteak beste, malgutasuna ekarri du horrek eta zentroei autonomia eman die. Lehen denek 12 ordu egiten zituzten ingelesez eta hori ez zegoen mugitzerik. Orain 6 eta 12 ordu artean egin ditzakete astean. Segun

eta zentroa nolako den, non dagoen kokatua, nolako ikasleak dituen, zein behar dituzten ikasle horiek, zer-nolako irakasleak dituzten... zentroak berak erabakitzen du zein plan nahi duen.

Oro har, zer hautatu dute zentroek?

Bada, beheko kurtsoetan ingeles gutxixeago sartzeari eta mailetan aurrera egin ahala pixka bat gehituz joatea. Normala eta naturala den bezala. Horixe esaten daramagu ez dakit zenbat urte: ez zela komeni 3 urtetatik atzerriko hizkuntza bat sartzeari

horrenbeste orduz.

Bestetik, zentroek, nahi edo ez nahi, proiektu linguistikoa egin beharra daukate. Orain arte proiektu linguistikorik gabe egiten zuten lan. Hemendik ematen zaie laguntza eta formazioa, baina derrigor egin behar dute proiektu linguistiko hori.

Irakasleei dagokienez, berriz, uneotan gehienak ikasten ari dira edo gaitzeko bidean daude. Baina hainbat urtetan irakasleak C1 maila izan gabe ingelesez eskolak ematen aritu dira, eta oraindik ere batzuk ari dira. Gainera, C1 zuten batzuek ez zegoen mailetan ere eskolak ematen zituzten. Hau da, Lehen Hezkuntzako irakasle asko Haur Hezkuntzan aritu dira ingelesezko C1 zutelako. Gainera, aurreko Gobernuak ez zuen aurreikusi ikasle horiek Bigarren Hezkuntzara igarotzean zer gertatuko zen ikasle horiekin eta afera hori ere Gobernu honek ordenatu du.

Aurrerapauso handiak eman ditugu, baina, orain zein da kontua? Hor ditugula ehunka plaza lan eskaintza publikora ezin ditugunak atera, C1 ingelesezko betekizuna izan behar dutelako. Eta hori momentuz ezin dugu egin, ez dagoelako baimendua. Baina eztabaida bestelakoa da: eta, nahi dugu? Hoberena hori ahalbidetzea litzateke, edo ez? Ba ote du zentzurik baldintza gisa jartzeak C1 izatea gurea bezalako komunitate batean? Eztabaida oso zabala da.

Nafarroako eremu ez-euskaldunean D ereduko lerroak irekitzeko apustua egin du zuen Gobernuak hasieratik. Inoiz baino aukera handiagoa dago Nafarroan euskaraz ikasteko, eta hala ere, D ereduan matrikulatu direnen kopuruak behera egin du. Bada kezkatzeko motiborik?

D ereduak ez du behera egin. Mezu hori ari da helarazten, baina inportantea da datuak ongi interpretatzea. Datuen arabera, esan duguna izan da, D eredu hutsa, PAIrik gabekoa, igo egin dela: 0,2 inguru. Oso igoera txikia da, baina hazi egin da. Eta D eredua PAIrekin, jaitsi egin da. Zergatik? Hori Iruñeko Buztintxurin eta Sarrigurenen dagoelako, oso zentro handietan, non asko jaitsi den jaiotza-tasa. Hortaz, ezin ditugu

datu absolutuak konparatu. Askoz ere eskaera txikiagoa egon da aurretan aurreko urtearekin alderatuta, eta beraz, datuak erlatiboki konparatu behar ditugu.

Egia da, halere, azken 10 urteetako argazkia hartzen badugu, berdintzua dela eta hazi ere ez dela egin D eredia. Baina orain lurralde osoan dute eskubidea euskaraz ikasteko, eskaintza eremu osora zabaldu delako. D eredia abiatu duten 10 ikastetxe daude eremu ez-euskaldunean, eta urrats hori eman izana guretzat oso inportantea da.

Espero zitekeen igoera handiagoa eremu ez-euskalduneko sare publikoan D eredia eskainita?

Ez dakit. Guretzat momentu honetan inportanteena da zonifikazioa gaintzea; ulertaraztea eskubide linguistikoak ezin direla zonifikatu. Eta adieraztea, Nafarroako edozein gunetan bizita ere, pertsona bat hiritar dela berme osoz eta eskubide guztiekin. Ez delako normala leku jakin batean edo bestean bizitzeagatik aukera gutxiago izatea, alegia, eskubide batzuk urraturik edukitzea. Zentzu horretan, lehen urratsa zonifikazioa gaintzea zen eta hori lortu da, hezkuntzaren arloan bederen.

Gainera mezu ikaragarri gogorak ari dira zabaltzen hainbat sektoretatik euskaldunon kontra eta euskararen beraren kontra. Beldurraren mezua ari dira igortzen eta testuinguru horretan ez da erraza aurrera egitea. Baina, ate hori zabalik dago, eta gutxi batzuk izan arren eremu ez-euskalduneko publikoan D eredian ari direnak, aurrerapausoa da. Are gehiago, kontuan hartzen badugu oso testuinguru latzetan urratsa egiteko gai izan direla.

Hezkuntza eragileekin zer-nolako harremana duzue? Hainbat eskari egin dituzte sindikatuak, eta kasurik egin ezean grebara joko dutela ere esan dute. Bestetik, akordio programatikoa jasoa duzue 2012ko murrizketa aurreko garaiko baldintzetara itzultzea.

Hori orain pil-pilean dagoen gaia da. Eragile sindikalekin egindako azken hezkuntza hitzarmena 2007-2011koa

zen. Eta hura ez zen bete. Bere baitan gauza interesgarri asko jasotzen zituena, baina gehientsuenak bete gabe geratu ziren. Urte txarrak hasi, krisian sartu eta akabo! Horretan geratu zen. Eta 2011z geroztik Nafarroan ez dago hitzarmenik hezkuntza arloan. Gobernu honek negoziazioari berriz heltzeko konpromisoa hartu zuen eta hori egin da urte hauetan.

Egia esan, negoziazioa, bere horretan, oso laburki eman da eta ia ez dela egon esan dezakegu. Indar guztiek ekarri dituzte euren proposamenak, Departamentuak puntuak puntu eztatzen ditu, irakurri ditu eta bakoitzak zer eta zergatik proposatzen zuen jakin eta gero, proposamen bat osatu du. Sindikatuei eman die borradore hori, non jasotzen diren hitz egindako zenbait gauza. Guk hasieratik adierazi diegu dena ezin dugula bete nahi duten epean eta nahi duten moduan. Eta, beraz, hainbat puntu negoziatu egin behar zirela kalendarizatze aldera.

Baina negoziazio sakonetan sartu aurretik sindikatuak argi utzi digute lerro gorri bat dagoela: zuzeneko irakaskuntza ordu kopuruarena, hain zuzen. Akordio programatikoa 10. puntuaren esaten da konpromisoa dagoela murrizketak lehengoratzeko. Zehazki hiru adibide jartzen ditu: ikasleen ratioa gelako — eta hori egin da 2016az geroztik —; ordezkapenak lehenengo egunetik edo ahalik eta azkarrenen — eta hori jasoa dago guk prestatu dugun zirriborroan —; eta irakasleen irakaskuntza zuzenerako orduen murrizketa, 25etik 23ra Haur eta Lehen Hezkuntzan eta 20tik 18ra Bigarren Hezkuntzan.

Denbora luzea daramagu esaten gure kalkuluen arabera 5 milioi euro behar direla ordu horiek murrizteko Lehen Hezkuntzan eta 15 milioi Bigarren Hezkuntzan. Diru hori, alegia, 20 milioi horiek ia 500 irakasle kontratatzeke. Ez da bestelako gasturik tartean.

Parlamentuan onartu zen aurrekontuak — lau alderdiek onartu zuten — Haur eta Lehen Hezkuntzan bi ordu soilik murrizteko ematen digu (inongo alderdik ez zuelako proposatu 20 milioi inbertitzea horretan). Eta hori egin egingo dugu. Datorren

“Azken 10 urtean, D ereduko ikasleen kopurua ez da igo, baina orain lurralde osoan dute eskubidea euskaraz ikasi ahal izateko, eskaintza eremu osora zabaldu delako. 10 ikastetxe daude eremu ez-euskaldunean D eredia abiatu dutenak, eta urrats hori eman izana guretzat oso inportantea da”

ikasturtean HHko eta LHko zuzeneko irakaskuntza orduak murriztuko ditugu 25etik 23ra. Horrek 130 langile inguru kontratatzea esan nahiko du. Eta 2020-2021 ikasturtean igaroko gara Bigarren Hezkuntzako orduak murriztera.

Epe horietan ez bada, Hezkuntza Departamentua ez da gai eskatzen dutena betetzeko. Eta nik ez dut jendartea engainatu nahi, egiten ahal dudalako sinatu hitzarmen bat gero bete ezin dudana.

Hortaz, negoziazioak etenda daude, baina horrek ez du esan nahi guk murrizketei buelta ematen eta lehengorazten jarraituko ez dugunik. Akordioarekin edo akordiorik gabe lehengorazten jarraituko dugu orain arte ere horixe egin dugulako.

EKARPENAK 1

HEZIKETA: ERALDAKETARAKO MOTORRA?

Filosofia, pentsatzen ikasteko giltza

Haur eta gazteen heziketak gizartearen eraldaketarako izan dezakeen ahalmenaz gogoeta egiteko eta, bide batez, filosofia hezkuntzari egiten dion ekarpenaz hausnartzeko, mahai-inguru bat antolatu zuen abenduan Agora Filosofia Elkarateak, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxearekin elkarlanean. “Heziketa: eraldaketarako motorra?” izenburupean, solasean aritu ziren Miren Camison, Ibai Iztueta, Jon Sarasua eta Ana Santamaria, Agora Elkarteko kide den Oihana Ameskua gidari zutela.

Hezkuntzaren desafio eta ezinegonei buruz mintzatze-ko, eta testuinguru horretan filosofia jokatzeko duen eta jokatu beharko lukeen zereginaz gogoeta egiteko, mahai-ingurua egin zuten abenduaren 12an Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean, “Heziketa: eraldaketarako motorra?” izenburupean, Agora Filosofia Elkarateak koordinatuta. Ibilbide baten emaitza izan dira jardunaldiok. Izan ere, Agora Elkarteko kide Oihana Ameskuak azaldu zuenez, filosofia irakasleak, Bigarren Hezkuntzan dihardutenak bereziki, uharte bakar-tuetan ari balira bezala sentitu izan dira maiz. Azken bi urteotan LOM-CEk oro har hezkuntzari eta bereziki filosofiari eman dien “astindua” erantsi behar zaio horri —EAEn, Heziberriren bidez gorpuztu da—, estatua aldatu baitiote irakasgai horri, eta nahitaezkoa izateari utzi baitio: “Ezinegon horrek eta beste batzuek mugituta hasi ginen elkartzen eta harreman-sareak osatzen. Eta ibilbide horren fruitu dira jardunaldi hauek. Baina harago doa gure kezka. Ez da gure sektorearen eskakizun bat, filosofia ordu gehiago behar ditugula aldarrikatzeko, edo ez hori soilik. Kezkatuta gaude lege horiek guztiek zer-nolako gizakia eta zer-nolako gizarte-eredua eraiki nahi ote duten. Eta ardura sortzen digu testuinguru

horretan humanitateek edota galde-rarako gonbita egiten duten arloek zeinen toki gutxi duten ikusteak ere”.

Agorako kideak sinetsita daude hezkuntzak gizarteko desafio berriei erantzun behar diela, eta filosofia ekarpenik egin dezakeela egiteko horretan, edota, behintzat, begirada interesgarri bat ekar dezakeela. Ameskuaren hitzetan, hezkuntza aldatu egin behar dela esatea, unekotan, mantra moduko zerbait bilakatu da: “baina zer ulertzen dugu aldaketa hitzarekin? Norantz jo behar du gure hezkuntzak? Zer betekizun du gure eskolak? Zergatik eta zertarako? Horiek ere egin beharreko galderak dira”. Eta, hain zuzen ere, era horretako auziei buruz hitz egiteko elkartu zituzten mahaiaren inguruan Miren Camison, Ibai Iztueta, Jon Sarasua eta Ana Santamaria.

Bizitza osoa, eskola

Ibai Iztueta Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta euskaltzalea izan zen hitza hartzen lehena, eta kultura maila zientifiko eta humanistiko azpimarragarria duten herritarrez osatutako gizarte ideal batez mintzatu zen, helburu “noblea eta lorgarria” dela iritzita. “Mundua konplikatua zen lehen ere, baina gero eta konplikatua da, eta izango da, ziur asko. Eta iruditzen zait, duintasun pixka batekin aurrera egingo badugu, eta pro-



tagonista izango bagara, beharrezkoa izango dugula mundua interpretatzeko behar besteko kultura maila”. Xede hori ipar hartuta, bitartekoa izango den erreminta bat proposatu zuten: haur eta gazteei pentsamendu kritikoa garatzeko balioko dien *Ño* izeneko aldizkaria, hain zuzen, gaztelaniazko *La leche* aldizkari madrildarraren ildotik jardungo duena, kalitatez eta erakargarritasunez. Izan ere, Iztuetaren aburuz, eskola ez da mugatzen formalitatez eskola deitzen zaion horretara; “bizitza osoa da eskola, eta hezkuntzaren parte bat da eskola formala; baina arlo ez-formala, kanpokoa, alegia, are indartsuagoa da, seguru asko”.

Mundua interpretatzeko behar besteko kultura mailaz diharduenen, Iztuetak badaki helburu elitista samartzat har daitekeela, eta, horregatik, ahalik eta zentzurik zabal eta atseginenean hartzeko deia egiten du: “Uste dut hezkuntza formalean ez dela aintzat hartzen eta ez dela bultzatzen gogoeta autonomorako eta garapen autonomorako gustua. Gaur egun, belaunaldi osoak dauzkagu papagaioak bezala komunikabideek esaten dutena errepikatzen. Eta gustatuko litzaidake tranpa horretan eroriko ez den edo erori ez den belaunaldi berri bat sortu ahal izatea. Helburua horixe litzateke, eta bitartekoa, aipatu dugun aldizkari bikain hori”.

Erantzunak baino gehiago, galderak

Jardunaldien goiburu gisa planteatzen den galderari helduta —“Heziketa: eraldaketarako motorra?”—, erantzun baino galdera gehiago sortu zitzaizkion **Miren Camison haur-filosofoiari**, izenburuak berak hiru kontzeptu indartsu uztartzen baititu, haren irudiko: hezkuntza, eraldaketa eta motorra. Filosofoaren esanetan, galderak berak transmititzen du zerbait: aldaketarako desira, hain zuzen, eta, zerbait aldatu nahi denean, zuzen eta orekatuta ez dagoelako izan ohi da. “Galdera horretan, aldaketaren desira ikusten dut, askatasun-iturri gisa formulatuta; baina zeren aldaketa? Eta zertarako behar dugu aldaketa? Zer da zuzen eta orekatuta ez dagoena, ongi eta lasai uzten ez gaituena? Zer eraldatzea komeniko litzateke?”. Camisonek dioenez, galdera horrek zalantzan uzten du hezkuntzak eraldaketa horretan erantzukizunik ba ote duen; baina, aldi berean, zentralitatea ematen dio hezkuntzari. “Aldaketarako motorra izan ote liteke hezkuntza? Bai ala ez? Zer edo nor aldatu beharko litzateke? Zer ez dago zuzen? Zerekin ez gaude eroso? Zer kendu behar da? Non daude gabeziak? Zer jarri behar da? Zein dira gaur egungo beharrak? Akaso mundua da ongi ez dagoena? Gizartea? Gerrak? Patriarkalismoak? Bortizkeria? Beharbada sobera

“Mundua konplikatu
zen lehen ere, baina
gero eta konplikatua
da, eta izango da, ziur
asko. Eta iruditzen zait,
duintasun pixka batekin
aurrera egingo badugu,
eta protagonista izango
bagara, beharrezkoa
izango dugula mundua
interpretatzeko behar
besteko kultura maila”

Ibai Iztueta

EKARPENAK 1: HEZIKETA: ERALDAKETARAKO MOTORRA?

“Hezkuntza ez da izate abstraktu eta ikusezin bat. Pertsonak gara eragileak. Gu denok: guraso, irakasle, senide, adiskide, herritar...”

Miren Camison

“Askotan haurren gain uzten dugu etorkizunaren pisua eta haiei pasatzen diegu gure motxila”

Ana Santamaria



dugun arinkeria? Axolagabekeria? Pentsamendu bakarra? Edo homogeneizazio-prozesua? Globalizazio ekonomiko kapitalista? Feminizidioak? Masakreak? Arrazakeria? Mundu likido postmodernoa? Giza harremanak ez daude ongi, beharbada?”

“Hezkuntza, eraldaketarako eragile?” planteamenduetan, ordea, tranpa txiki bat ezkututzen du bere barruan, Camisonen irudiko, erantzun moduan baitago planteatuta galdera: iradokitzen da eraldaketarako eragilea dela hezkuntza; baina, aldi berean, izate abstraktu bezala hautematen da hezkuntza. Hezkuntza, ordea, filosofoaren hitzetan, ez da izate abstraktu bat: norik eragiten du hezkuntza? Norik hazten eta hezten ditu umeak eta gazteak? Zer eragile dago hezkuntzaren atzean? Horiexek dira Camisoni jardunaldien izenburuko galderak planteatzen dizkion galderarik sakonenak, eta badute erantzunik ere: “Hezkuntza ez da izate abstraktu eta ikusezin bat. Pertsonak gara eragileak. Gu denok: guraso, irakasle, senide, adiskide, herritar... Eta, beraz, galdera hau egin daiteke: nola alda daiteke gutako bakoitza gizarte honetan? Denok osatzen badugu gizartea, denon ardura izango da eral-

daketa. Baina nola eralda gaitezke hezkuntza-eragileak? Nola eralda dezakegu pertsona heldu bakoitza?”.

Beste galdera handi bati ere heldu nahi izan zion Camisonen jardunaldietan: zer da hezkuntza? Haren esanetan, askotan bi kontzeptuak nahasi egiten diren arren, ez dira gauza bera hezkuntza eta eskola. Hezkuntza definitzen hasita, hezkuntza ez da kanpotik barrura egiten den bide bat, Camisonen iritziko; aitzitik, barruan sortzen den prozesu bat da, kanpokoarekin orekan, bestearekin orekan eta munduarekiko harreman orekatu batean eratzen dena. Hain zuzen ere, horrexegatik, filosofoak gehiago sinesten du autorregulazioan, hezkuntza kontzeptuan baino. “Autorregulazioa ez da kanpotik barrura datorren zerbait, munduarekin eta besteekin harremanetan gauden bitartean barruan sortzen hasten zaigun zerbait baizik”. Eta filosofoiak zerikusia du horrekin guztiarekin, hizlariaren aburuz, mundua misterio bat delako, eta haurrentzat dena delako berria eta misteriotsua jaiotzen denean: nor naiz ni mundu honetan? Nolakoa da mundua? Nola kokatzen naiz ni? “Galdera horiei erantzuteko, beharrezkoa da barrutik kanporako

prozesua egitea, norbera izateko prozesua egitea, alegia; horretarako, noski, ezinbestekoak dira autonomia, eta kuriositatea eta asertibitatea, eta galdetzeko grina...”.

Beraz, Camisonen planteatzen duenez, jomuga pertsonala da: lehenik, norberaren burua ezagutu behar da, gero besteari —haurrari, gazteari, ondokoari, bikoteari, lagunari, senideei...— izaten uzteko. “Gutako bakoitza da arduraduna. Gu gara eraldaketaren motorrak. Gizarte hau denon artean sortzen dugulako, eta hezkuntza ez delako izate abstraktu bat. Nola aldatu daiteke gutako bakoitza? Beharbada, hori da gakoa? Nola aldatu naiteke ni, pertsona naizen aldetik, egunerokotasunean? Ama naizen aldetik? Edo irakasle naizen aldetik? Zer guraso edo hezitzaile mota behar dute gure seme-alabek, ahalik eta modu osasungarrienean hazteko eta hezteko? Zer eredu mota behar dute gure haurrek euren ondoan? Horixe da, beharbada, hezkuntza”.

Camisonen ildo berari helduz hitz egin zuen **Ana Santamaria irakasle eta Montessori eredu gidariak**, eraldaketaren motorra helduengan ikusten baitu hark ere: amengan,

aitengan, irakasleengan, aitona-amonengan, bizilagunengan... “Iruditzen zait askotan haurren gain uzten dugula etorkizunaren pisua, eta haiei pasatzen diegula motxila, esanez eurak direla etorkizuna; baina, nire ustez, haurrekin gauden helduak gara finean etorkizun horren erantzule, eta guk hartu behar ditugu ardurak”. Irakasleak gaineratu duenez, ordea, gaur egungo heldu asko autoritarismo-zantzu batekin edo biolentzia handiegiarekin hazi eta hezi dituzte, beldurraren eraginpean. Zer gertatzen da horrelako heziketa izan duen erakunde batean? “Beldurrekin hezi bagaituzte, kanpotik eskari bat etortzen zaigunean, behartuta sentitzen gara egitera, badakigulako gure jokabideak ondorio txar bat izango duela bestela. Gizakion lehen egitekoa ingurunera egokitzea denez, horrelako heziketa baten ondorioz, prest egongo gara edozer egiteko, bizirauteko helburu bakarrarekin. Hau da, kanpotik eskatzen digutena egingo dugu, egoera horretara egokituko”.

Beraz, Santamariaren ustez, heziketa eraldatzailea izan dadin, kontuan izan behar dira bi gako behintzat. Batetik, helduak bere historiaren eta bizipenen kontzientzia izan behar du: “Zer gertatu zaigun onartzen ez badugu, etengabe errepikatuko dugulako errealitate berbera, aurrez gertatu zaigun hori, alegia. Helduok argi jakin behar dugu nondik gatozen, gure historia eta bizipen horiek azalertzaren direlako haurrekin ari garenean”. Bestetik, garrantzitsua da Santamariarentzat haurren garapena nolakoa den jakitea, eta etapa bakoitzean zer premia nagusi dituen jabetzea. “0-6 adin tarteko garunari xurgatzaile deritza Maria Montessorik. Hark dio gure inguruan dagoen guztia xurgatzen dugula adin tarte horretan, eta etorkizuneari horren arabera antolatzen eta eraikitzen dugula gure burua. Haren esanetan, horren arabera pizten dira pixkana gizaki garen heinean guretzat unibertsalak diren joera batzuk: joera esploratzaileak, existentzialak, taldeetan antolatzeak, komunikatzaileak... Berez dakargu hori gizakiok, eta unibertsala da leku guztietan. 0-6 adin-tarteari kalita-

tearen arabera, aberastasun handiagoarekin edo txikiagoarekin garatuko ditu pertsonak aukera horiek”.

Irakaskuntzatik, herrigintzatik, familiagintzatik

Irakasle-lanari, herrigintzako esperimentari eta gurasoen bizipenei helduz, bere bizi-jarduneko hiru angelu horiei helduz, alegia, erantzun zion **Jon Sarasua Mondragon Unibertsitateko irakasle eta pentsalariak** galderari. Lehen ildoari dagokionez, Sarasuak ibilbide luzea du egin unibertsitateko irakasle gisa, besteak beste, hainbat ikasketatan ikasleak alderdi ideologiko-soziologikoan prestatzen. “Gaur egungo ikasleek teknikoki prestatu behar badute ere, bestelako zer prestakuntza behar dute gutxienez, munduan kokatzeko eta egungo errealitateko debateetan orientatzeko?”; galdera horretatik abiatuta bideratzen du bere jarduna, xede nagusi honekin: ikasleari bere kabuz pentsatzeko erremintak ematea, eta gizarte honetako transformazioetan, politikan eta gealdaketetan orientatzen laguntzea.

Urte hauetan guztietan, ordea, ekinbide horretan ere bilakatuz joan da Sarasua. Hastapenean, 2000. urtearen inguruan, “beste mundu bat posible da” leloarekin lotutako artxipelago zabal horren barruko zioak azaltzen saiatzen zen, baina, denboraren joanean, konturatu da horrek ere baduela arrisku bat: doktrinamendua, hain zuzen ere, nahiz eta “oso doktrinamendu alternatiboa” izan. “Denborarekin ikusi dut nik ez diodala ikasleari kontatu behar munduan gertatzen ari denaren bertsio hau, baizik eta askoz ere garrantzitsuagoa dela bestelako bertsioez ere zalan-tza egiten ikastea”. Beraz, uneotan garrantzitsuagoa iruditzen zaio gaur egungo gizartearen oinarriak azaltzea, une honetara iristeko gaurko gizarteak zein tradizioetatik edan duen azaltzea, alegia: tradizio filosofikoak, politikoak, erlijiosoak... Eta ikustea XX. mendeko ideologiek zer eman duten: liberalismoak, sozialismoak, kontserbadurismoak, anarkismoak... Horrela, konturatuko gara XXI. mendean galdera berri asko sortu direla, eta, askotan, XX. mendeko tradizioek

“Ez naiz orain hezkuntzaren kontra jarriko, baina, hori bai, askotan hezkuntzan jartzen dugun konfiantza erabatekoa beheratu nahi nuke, eta aztertu ea gizarte batean nola mamitzen diren balio humanizatzaileak. Era guztietako mirariak eskatzen dizkiogu eskolari, eta eskolak dena ezin du”

Jon Sarasua

ez dutela balio horiei erantzuteko. Adibidez: “Askatasuna” kontzeptuaren kasuan, esaterako, “nire gorputzarekin nahi dudana egiten dut” kontzeptzio ilustratu horrekin, ez daukazu erantzunik zure haurren begiak zein koloretakoak izango diren erabakitzeke duzun aukeraren aurrean. Beraz, askatasunaren beste ideia bat behar dugu. Guztiz gauza berriak datoz, eta horien aurrean beharbada orain arte atzerakoia izan dena erabat aurrerakoia izan daiteke ez dagoelako garbi zer dagoen aurrean, zer atzean...”. Aldi berean, kontziente da gaur egungo kontraera guztiz indibidualista dela. “Uste ohi dugu pentsatu egiten dugula, eta libreak garela, eta hartzen ditugun erabakiak gureak direla; baina ez da horrela. Adibide bat jarriko dut: duela 100 urte, denek gauza bera pentsatzen zuten homosexualei buruz, eta,

EKARPENAK 1: HEZIKETA: ERALDAKETARAKO MOTORRA?

orain, denok gauza bera pentsatzen dugu homosexuali buruz. Iritzia aldatu da, baina uniformetasuna ez”. Pentsalariak uste du ideologia progresista urtzen ari dela, eta gauza gehienak birpentsatu egin behar direla. “Panorama interesgarria dela uste dut, eta desafioa handia; eta eskola-orduetan egin daitekeena –izan er-tainetan, izan unibertitatean— ezer gutxi da. Helburua, beraz, ikasleei aukera osoa aurkeztea da, eta esatea: ‘Ikasi pentsatzen’. Jendeari pentsatzen erakutsi behar diogu”.

Bigarren angeluari dagokionez, herrigintzari dagokionez, hain justu, Sarasuak 30 bat urte daramatza bidea egiten, eta horietatik erdiak hezkuntza-baliabideak sortzeari eman dizkio. Mugimendu indigenetan, ekonomia solidarioaren arloan, euskalgintzan, kooperatibagintzan... , premisa batekin jardun izan du ekintzaileak: “Errealitate hau eraldatzekotan, sor ditzagun prestakuntza-baliabideak. Estrategiak hezkuntzazkoa izan behar du, edo ez dago zer eginik”. Baina, denborarekin, transformatuz joan da arlo horretan ere, eta hasieran heziketan eta hezkuntzan zuen sinesmena narriatuz joan zaio: “Ez naiz orain hezkuntzaren kontra jarriko, baina, hori bai, askotan hezkuntzan

jartzen dugun konfiantza erabatekoa beheratu nahi nuke, eta aztertu ea gizarte batean nola mamitzen diren balio humanizatzaileak”. Eta, horri loturik, Sarasua eszeptiko da jardunaldiko izenburuko hitz nagusiarekin ere, eraldaketa hitzarekin, hain zuzen, “Marxek arrazoi handiz esaten zuen moduan, eraldaketarako historiako baliabiderik erraldoiena kapitalismoa delako”. Eta, aldiz, eraldaketarako hezkuntza kontzeptua guztiz kontzeptu ilustratua delako, batetik, eta, bestetik, guztiz kontzeptu kapitalista. “Gaur egun, gainera, autore interesgarri batzuk ari dira esaten zenbateraino humanizatzea ez ote den eraldaketaren aurreko erresistentzia bat jartzea. Hortaz, niri humanizatu hitza erabiltzea gustatzen zait, humanizazio-prozesu apalak interesatzen zaizkidalako eraldaketa potoloak baino gehiago; esan bezala, eraldaketarik potoloena kapitalismoa bera delako”.

Hirugarren angeluari tiraka, Sarasuak, lehen aldiz aita izan zenetik –gaur egun hiru seme-ren aita—, zera galdetu izan dio bere buruari: “Nik zer nahi nuke, haur hauen arduradun edo haien hezkuntzaren arduradun naizen bitartean, nire seme hauek bizitzea, ikastea eta garatzea?” Hori

eskolak egin behar duen edo ez kanpoan utzita, 10-12 arlo atera zitzaizkion irakasleari. “Adibidez, nire semeek arlo fisikoa, edo euren gorputzaren gaineko kontzientzia garatzea nahi dut nik; espiritualtasuna edo arlo existentziala garatzea ere nahi dut; baita eskulana ere, esaterako, zerra edo jostorratza maneiatzen ikastea; sukaldaritza ikastea... etab. Hortaz, nik nire semeentzat nahi nituzkeen garapen-arloetatik gehienak ez dizkit eskolak ematen. Emango dit % 30-40. Beraz, gainerakoa niri dagokit, familia naizen aldetik. Eta familia, modu zabalean ulertuta: familiako kideak, baina baita nire lagunak edota herriko elkarteak ere”. Beraz, Sarasuaren irudiko, lehen galdera “zer nahi dugu haur hauek bizitzea?” baldin bada, hezkuntza formalaren arloan sartuta, bigarren galdera oso samurra eta bakarra litzateke: “Haurrek bizitzea nahi dugun horretatik, zer eska diezaiokegu eskolari?”. Eta, bigarren galdera horri loturik, haren iritziz, uneotan gehiegi eskatzen zaio eskolari, gaur egun “dena” eskatzen zaiolako eskolari: “Egin ezazu nire seme-alaba drogazaletasunean ez dadin erori!”. “Era guztietako mirariak eskatzen dizkiogu eskolari, eta eskolak dena ezin du”.





Burdin Harana
Legazpi - Gipuzkoa

Hezkuntza

Argazkia: Jose Altzola



Mirandaolako Burdinola martxan!!

Historian atzera egingo dugu eta Erdi Arotik Industrializaziora Euskal Herrian burdinak izan duen garrantziaz jabetuko gara.

Hiru gune

1 BURDINOLEN IBILBIDEA, XI-XIX MENDERAINO.

Azkori-Aratz parke Naturalaren magalean, UR-OLA ibai jaotzen da. Burdin Haranaren ardatz nagusia. Bertan olagizonak eta baserritarak bizi izan dira.

- Azkorenaren Ekimunea
- Opatzen Txokoak

2 MIRANDAOLAKO PARKEAN, XIX. MENDERAINO.

Aurre industrializazioan murgilduko gara, Mirandaolako Burdinola martxan ikusiz. Teknologia, energiak, lanbideak eta besteakiko garak lantzen ditugu.

- Euskal Burdinaren Museoa
- Mirandaolako Burdinola

3 LANGILEEN IBILBIDEA, IRALTZA INDUSTRIALA.

Burdinola zaharrek lantegi bihurtuko dira, olagizonak langile, eta baserri asko langileen etxebizitzak. 1950. urtean murgilduko gara, frankismo garaiko herri industrializatuak baitira.

- Lantokia
- 1950eko etxola eta etxebizitzak
- Oritola Lantoki - Artea



Taldea handientzako prezio bereziak.

Ruhik izanez gero, ingelesez egin daiteke bisita

Olapintzora dastatzeneko aukera

www.lenbur.com

943 73 18 95

943 73 04 28

ikerketa@lenbur.com

Egun beteko edo bizpahiru egunetako egonaldiak. Eguraldi txarrenekin "B" plana. Maita guztiel egokitutako tailer eta baitak. Mirandaolako Parkean, merenderoa, frontoia, haurren parkea, pista jokoa, eta beste daude.



EKARPENAK 2

EBALUAZIO HEZITZAILEA IRUTEN

Pertsonaren kontzientziazioa eta ahalduntzea ipar

‘Ebaluazio Hezitzailea’ izeneko gida argitaratu du LAB sindikatuak Euskal Herriko ikastetxe guztietara helarazteko xedez. Ebaluazio hezitzailearen inguruan formazioa jasotzeko aukera ere emango dute. Horretarako, iruten@lab.eus helbidera idatzi behar da.

Hiru urte dira LABek IRUTEN dinamika martxan jarri zuela. Azken urteetan garatutako oinarrietan aurrera egin eta Euskal Herriak behar duen hezkuntza-sisteman urrats praktikoak egitea izan du helburu. Horrela, hezkuntzako hizpideak, hausnarketak, zalantzak eta tresna eraginkorrak partekatzeko asmotan sortutako egitasmoak lehen fruitua eman du: *Ebaluazio Hezitzailea* gida, hain zuzen ere. Besteak beste, Ane Ablanedo, Alex Barandiaran eta Lore Erriondo unibertsitateko irakasleen eta ebaluazioan aditu diren ikerlarien ekarpenak jaso dituzte gida hau on-

tzeko garaian. Aditu horien ekarpenetan oinarrituz hamar puntuko dekalogo bat osatu dute. Ondoko lerroetan atalez atal jasotzen da:

“1. Ebaluazio eredu propioa. Ikaslea ikaste-irakaste prozesuan erdigunean kokatuz eta herri eta herritar gisa ditugun, eskubide, helburu, erronka, nahi eta ametsak aintzat izanda, ulertzen dugu guk ebaluazio eredu propioa. Hezkuntza-sistema propioaren bidean ardatzetako bat izaki, bestelako eredu baten bidean urratsak emateko beharra agerikoa da. Hobekuntzan, ekitatean, aukera berdintasunean oinarrituta eta, garrantzizkoa dena, aurrera egiteko plan eta neurri zehatzak eskainiko dituena. Prozesu konplexua eta faktore anitzekoa izanik, ikas-irakaskuntza prozesua osatzen dugun agente guztiok erabaki behar dugu zer, nola, noiz, nork eta zertarako ebaluatu. Emaitzak aztertu eta honen ondotik hobekuntza integralerako neurriak proposatzeko”.

“2. Ebaluazioaren helburua(k). Ebaluatzea ez da kalifikatzea. Ez da nota bat jartzea. Ebaluatzea ikaste-irakaste prozesuaren baitako elementua da. Autoebaluazioa eta koebaluazioa indartuz, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeaz gain, horien zergatiak aztertu eta hobetzeko neurri hezitzaileak ezartzeko balio behar du.

Ebaluazioak irakaskuntza/ikaskuntza prozesuarekin lortu nahi dugun xede hori ikasleak bereganatu ote duen erakutsi behar digu, hezkuntza ibilbide horretan urratutakoa eta urratu beharrekoa bistan jartzeko”.

“3. Barne-kanpo ebaluazioa. Gakoa barne ebaluazioa da. Merkatuen interesen arabera inposatutako ebaluazioak arbuizaten ditugu. Beraz, kanpo ebaluazioak ez dira helburu. Alta, kanpo ebaluazioek modu orientagarri eta askotan partzialetan bada ere, gure hezkuntza ereduaren osasunaz hainbat datu eta joera adieraz liezazkigukete. Modu koherentean eta arrazionalen ezarriko dira eta ez dute balio akademikorik izango, ranking eta sailkapenak ekidinez eta konfidentzialtasuna bermatua egonik, sistema hobetzera bideratuak egongo dira beti eta orientagarriak izango dira. Bide horretan, hautaproba eta baxoa gisako azterketak kendu behar dira”.

“4. Ikaslea ikaste-irakaste prozesuaren ardatza da. Ikasle bakoitza bat eta bakarra da. Autoerregulazioa helburu, bakoitzaren erritmo, gaitasun, testuinguru eta berezitasunak ulertuz eta errespetatuz garatu behar da ebaluazioa. Modu integrean, gizakiaren hiru dimentsioak (psikologikoa, kognitiboa eta soziala) aintzat



hartuz eta norbanako eta herritar gisa modu integral batean garatzeko, tresna eta teknika anitzak erabiliz eta hobekuntza terminoetan neurri hezitzaileak proposatuz. Irakasleak behatzailea eta bidelaguna izan behar du prozesu horretan guztian”.

“5. Konpetentzietan ebaluatu.

Hezkuntza osorako nahiz oinarrizko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira hezkuntza konpetentzia orokorrak eta hezkuntza testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan, bai informaletan. Alta, horiek ez ditugu modu utilitaristan ulertzen. Konpetentzien formulazioak hezkuntzaren xedea beste modu batean ulertu eta planteatzeko bidea ematen digu. Horiek ebaluatzeko formazioa indartu, marko erreferentziala osatu eta tresnak nahiz ereduak beharrezkoak zaizkigu. Era berean, metodologiak berrikusi, baliabide pedagogikoez hausnartu eta eredu pedagogiko berriak ezagutu eta ezartzeko neurriak beharrezkoak dira”.

“6. Curriculumak. Curriculumak ortzi-mugarako bidea marrazten du. Euskaldunok Euskal Herriaz ez ezik, munduaz dugun ikuspegiaren irudikapena da. Euskal Herrirako prestatzen den kultur ibilbidearen hautaketa da, hau da, Euskal Herriko ikasleek, gizabanako eta gizartekide

gisa, beraien garapen osoa Euskal Herrian eta mundu zabalean bizitzeko konpetentziak lor ditzaten. Beraz, curriculumak etengabe ebaluatu beharrek atala da. Alta, konpetentziak ikaste-irakaste prozesuaren ardatza badira ez du zentzurik curriculumak irakasgaika eraikitzeak. Euskal Curriculumak berrikusi eta goiko gakoetan baitan eraldatzea proposatzen dugu”.

“7. Informeak aldatu, notarik ez.

Ebaluazioaren baitan, honen emaitzak nola plazaratzen, transmititzen diren garrantzia du. Arlokako kalifikazio informeekin bukatu eta konpetentziak erdigunean kokatuz, horien gaineko balorazio informea osatzea hobesten dugu. Horren osaketa ikasle eta irakasle zein beste hezkuntza langileen parte-hartzeaz eraikitzea proposatzen dugu. Ikaslea izan dadin bere garapenaren elementuak azaltzen dituen. Ikaskuntza esanguratsua oinarri”.

“8. Langileon ebaluazio hezitzaileak.

Autoebaluazio eta koebaluazio terminoetan egina. Hezkuntza komunitatearen parte-hartzean oinarritua eta hobekuntzara bideratua egon behar du. Ikasleen ikaste-irakaste prozesuan eragin handiena dugun aldagaietako bat gara langileok, baita hezkuntza kalitatean ere. Horretarako, eta, ezinbestean, lan baldintza

egokiak bermatu behar dizkigute eta konfiantza eta prestigioa beharrezkoak ditugu. Ebaluazioaren bidean, garapenerako hobekuntza arloak identifikatzen, ahalbidetzen lagundu behar du. Hauek aztertu eta ikuspegi hezitzaile eta hobekuntza terminoetan laguntzak eta neurriak proposatu, formazio klabeetan beti”.

“9. Ikastetxeen ebaluazioa.

Ikastetxeen autonomian sakontzen, ikastetxeen ebaluazio ereduak garatzea beharrezkoa da ikuspegi pedagogikotik hobekuntza bermatzeko. Halako ebaluazioak ahalbidetu behar dira lituzke koordinazio pedagogiko eta curricular hobekuntza, baita hezkuntza kalitatea eta familien eta hezkuntza komunitatearen parte-hartzea eta inplikazioa indartzera zuzendutako kudeaketa eraginkorra ere. Ikastetxe bakoitza bere testuinguruan kokatuta, sailkapenak baztertuta eta konfidentzialtasuna bermatuta egonik”.

“10. Sistemaren ebaluazioa.

Sistemaren adierazleak, programak, zerbitzuak, kudeaketa zein elementu nagusiak aldioro ebaluatzea beharrezkoa da, hobetzeko neurriak zehaztu eta hezkuntza-politikarako erabakiak hartzeko oinarri bat izateko. Horren harira, sistemaren ebaluazio-eredua zehaztea proposatzen dugu; alegia, marko orokorra osatzea”.

GALDEIDAZU

NOLAKOA DA IRAKASLEEN BILAKAERA PROFESIONALA BIGARREN HEZKUNTZAN?

Izarren hiria edota irakasleen ametsak lan-ibilbidean

Izarren Hiriaz, hots, unibertsitateko graduondoko gazteen ilusioaz hitz egin dezagun: Bigarren Hezkuntzako masterra amaitu berri duten momentuaz. Ez dugu irakasle berriek erreferentzia galtzea nahi. Ibilbide hau, askorentzat behintzat, jubilazioa iritsi arte izango da. Besterik gabe hel diezaiogun narrazioari (*ikus. narrazio teknika bibliografian).

La La Land pelikulan (*ikus. bibliografia), bi gazte kasualitatez elkartu ziren, eta, gainera, batak besteari ez zion aitortzen bere maitasuna. Baina amodioak bi gazteak bereganatu zituen. Sentitutakoa adieraztea kostatzen zitzairen. Halabeharrez, etengabe hitz egiten zuten etorkizunean zertan egingo zuten lan. Alegia, filmean bi gazteek bizitza nola lotzen duten ikusten da, hau da, beraien ilusioa etorkizunarekin eta gustukoa duten lanarekin. Hainbesteko garrantzia ematen diote lanari non pelikularen amaieran bikotea hautsi egingo den. Horrela, bakoitzak lortu du bere amets artistikoa.

Pelikula modu askotan uler dezakegu, baina argi gelditzen zaigu bi gazte hauek beraien lan-ibilbidea lehenetsi dutela beraien sentimenduen gaineratik. Hortaz, pelikularen bukaeran ikusle bakoitzak bere ondorioak aterako ditu.

Irakasle izan nahi dutenek ibilbide luzea izango dute bere aurrean. Lehenengo, Master Amaierako Lana



IMANOL IRAOLA

Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta Hezkuntza Zientzietan doktorea



defendatu beharko dute. Ondoren, Hezkuntza Sailean, Lurralde Ordezkaritzan beraien irakasgaiaren zerrendak irekitzen direnean izena eman. Azkenik, telefono deiaren esperoan egongo dira. Deia jaso baino lehen, agian, urtebete edo gehiago pasa daiteke, garai batean horrela zen, behintzat.

Irakaslearen lanak ezaugarri bereziak ditu eta artikulu honetan Bigarren Hezkuntzatik hitz egiten ari gara. Diziplina akademiko bat menderatu behar dugu. Gainera, zientzia hori hamazazpi urte genituenean hautatu genuen; ikasketak aurrera doazen heinean bere alderdi sakonagoak ikastea gehiago maite dugu. Baina karrera bukatzean amildegia dator, orduan kontziente gara hutsune eta galdera gehiago daudela erantzunak baino. Gelan sartzen garenean kezka horiek guztiak lotan gelditzen zaizkigu, auskalo memoriaren nongo zoko ilunetan gordetzen diren. Hortaz, helburua eskola ematea da, ikasleen eta institutuaren beharrak asetzea: alegia, curriculum bete behar dugu.

Jadanik, hogeitabost urte edo gehiago bete dituzu, zerrendetan ez zaude dagoeneko azken postuan. Gainera, egiten dituzun ordezkapenak luzeak dira, institutuan jarraian aste batzuk pasatzen dituzu. Une hau irakaslearen lan-ibilbidearen narrazioan aparte-koa da hausnarketa sendoak egiteko, bai arlo pedagogikoan, bai didaktika

ikuspegitik. Orain gelan egoteko eta ikasleak ezagutzeko beharrezko hel-dutasuna duzu; horrela, irakaskuntzan jarraitzea erabaki duzu. Hemendik aurrera adi egongo zara hezkuntza korrante ezberdinei; nola aukeratu jar-duera bat edo bestea; hala, hezkuntza berrikuntzak interesa sortzen dizu.

Badirudi zerutik notiziak ailegaten ari direla, argi dago ez direla esame-sak: bai, oraingo honetan bai, badaude oposaketak hezkuntzan. Denbora oso azkar doa, ikasturtea hasita dago, mintegiko programazioak ez zeuden osatuta ditxosozko gaitasunekin, ez barkatu, konpententziekin esan nahi nuen; eta, hala ere, oposaketak prestatu egin behar dira. Lehenengo, ikasgaiaren gaitegiak ondo aukeratu behar dira. Gero, egutegiari begiratu, agenda bat osatu, berdina ipintzen ari naiz google calendar-en eta paperezko agendan; gainera, ikasteko egunak eta ordutegiak etxekoekin hitzartzen badi-tuz askoz hobe konponduko zarete. Hortaz, has gaitzen ikasten, unibersitateko ostegunik gabe, noski.

Oposaketaren irakasle funtzionario-gaien zerrendak argitaratu dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zure izena ere hor dago. Hemendik aurrera, Hezkuntza Unibertsitate kanpoko irakasle funtzionarioa zara. Egoera berri honek ere badu bere bidea, lehen urratsa praktiketako aldia gainditu; ondoren, denboraren poderioz, institutu batean zure plaza finkoa lortuko duzu. Horrela, dirudienez gi-zarte osoak hainbeste miresten duena lortu duzu: lan egonkortasuna.

Artikulu honetako hasierara buel-tatuko gara. Bertan, beti ere idazteko narrazio idazkera pedagogikoaren teknikari eutsiz, zineko *La La Land* pelikularen gogoetarekin hasi ginen. Bi gazteak, gaur, zeruko izarrei begira zeudenean; etorkizunean beraien lanean proiektatzen zuten beren burua. Hala, lan-ibilbidea magiaz osatzen zu-ten, lan artistikoa zen beraiena. Baina hala ere, aitortu behar dugu, ikasketak amaitzean bakoitzak gure ametsak eta ilusioak ditugula, nahiz eta etengabe entzun behar izaten dugun lan mun-duko pragmatismoaz.

Irakasle funtzionariook aldizkariko irakurleari, batipat irakasle gaztea de-nari, informazioa eman nahi diogu une

honetan, adierazi zein aukera dituzten lan-ibilbidean unibertsitatez kanpoko hezkuntzan. Teorian lan-ibilbidea egi-teko aurkerak hor egon beharko luke, beste edozein lanbidetan bezala.

Hel diezaiogun zuzenean gaiari.

Unibertsitatez kanpoko irakasleak baditu bere berezitasunak. Gure iritziz interesantea da ezagutzea zein den ibilbidea; horrela, bakoitzak dauzkan baldintzekin, hezkuntza-sistema osoari eta gizarteari duen onena eskainiko dio. Gainera, ez die uko egingo bere baitan mugitzen diren ilusio horiei.

Halaber, ausardiaz josi nahi dugu testu hau. Gauza bat da sistemak eskaintzen duena eta beste bat da gure ustez hobetu daitekeena, bai maila indibidualean bai maila kolektiboan. Ahaztu gabe, hobekuntzak gizarte guztiarentzako izan behar duela.

Hala, lan-ibilbidean irakasle fun-tzionarioek bere institutuan eman dezaketen lehenengo urratsa zuzenda-ritza taldeetan parte hartzea litzateke, bere burua eskainiz kargu egokienean. Zuzendaritza kargura aurkezteak, beti ere proiektu batekin, lege arategiak eskaintzen duena jasotzea dakar: or-dainsaria asko hobetzen da. Bestalde, aukera honek duen arazorik larriena da jakitea aurkezten dena benetan aitzindaria den ala ez; hezkuntza ko-munitatea biziki bultzatu behar da-eta.

Era berean, irakasle funtzionario bazara, aukera duzu Unibertsitatean eskolak emateko. Hori bai, irakasle asoziatu horrek unibertsitatean eskola eman dezan lan bateragarritasun agiria bete eta onartua izan behar du, irakas-lea bi erakunde desberdinetan aritzen delako. Irakasle asoziatuak bere lanal-diagatik soilik eman ditzake eskolak, eta ez bertako irakasleen moduan, horiek lanaldiaren zati bat ikerketan jarduten baitira. Hortaz, hezkuntza ikerketa ofizialean unibertsitatez kanpoko irakasleak ezin dira jardun; bere lana laguntza bezala hartuko da, baina ez ikerketa taldeko partaide moduan. Aipatu dugun egoerak —ins-titutuko irakaslea aldi berean uni-bertsitatean asoziatua dena—, ez du zerikusirik titulazio akademikoarekin, edota doktore gradua edukitzearekin, asoziatuen mugarekin baizik.

Ondoren, Hezkuntza Saitetik eskaintzen diren beste mota bateko

Unibertsitatez kanpoko irakasleak baditu bere berezitasunak. Gure iritziz, interesantea da ezagutzea zein den ibilbidea; horrela, bakoitzak dauzkan baldintzekin, hezkuntza-sistema osoari eta gizarteari duen onena eskainiko dio. Gainera, ez die uko egingo bere baitan mugitzen diren ilusio horiei.

lanpostu batzuek hitz egingo dugu. Horiek zerbitzu eginkizunetako forma juridikoarekin eskaintzen dira. Hortaz, lanpostu horiek aldi baterako dira eta ez dira finkoak, hau da, urtero berri-tzen dira:

- **Berritzeguneetako aholkulari eta teknikari anitzak.** Irakas-leen formakuntzan eta aholku-laritza pedagogikoan datza bere lana. Gainera, Hezkuntza Sailari, eta sailburuaren mende dagoen berrikuntza zuzendaritzari, interesatzen zaizkion Hezkuntza Berrikuntza ildoak gauzatzen dituzte, noski legearen mugare-kin, gaur egun LOMCE.
- **Ingurugela.** Ingurumenaren hezkuntzaren bulegoetako irakasleen plazak eskaintzen dira.
- **Hezkuntza Saila behin-behine-ko hezkuntza ikuskatzaileak** hornitzeko beharrea egoten da, ordezkapenei edota lan jarduera berriei egokitzeko.
- **ISEI/IVEI Irakas Siste-ma Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko teknikariak.** Be-raien funtzio nagusiak ondokoak dira: hezkuntza sistemaren ikuspegi orokorra; ebaluatzeko

Aspalditik ari dira hitz egiten irakasleen ebaluazioaren beharraz, baina ezer gutxi ikertzen ari da besteaz: nola ikusten duten irakasleek bere lan-ibilbidea.

Lerro hauetatik esan nahiko nuke sistemak adierazi behar diola adineko irakasleari zor zaion onura eta balioa, dagozkion tresnak erabiliz: adibidez, klaustroan esperientzia handiena dutenei aukera emanaz irakasle gazteei laguntzeko eta ofizioa erakusteko. Hala, oreka zainduko dugu gaztearen ilusioarekin eta kemenarekin.

tresna egokiak landu; nazioarteko ebaluazio konpromisoak betetzeko dokumentazioa eta probak; hezkuntza berrikuntzaren emaitzak aztertu, aholkularitza orokorra sortu. Kanpo ebaluazioak kudeatzen dituzte. Egun, Europar Batasuneko Kompetentzien ebaluazioa hedatzeaz eta sustatzeaz arduratzen dira bai ikastetxeetara heltzeko bai curriculumetara.

- Hezkuntza administrazioan eta Eusko Jaurlaritzako administrazioan ere lan egin dezakete irakasle funtzionarioek, beti ere, lehen aipatutako zerbitzu eginkizunetako ereduarekin. Kudeaketa eta dokumentazioa lantzea izango litzateke betebeharr nagusia. Hala, hezkuntza-berrikuntza, administrazioa edo

ikastetxeen antolakuntza izan daitezke bi adibide esanguratsu.

Azkenik, irakaslearen lan-ibilbidean institutuko irakasleen kasuan, soldata eta lanpostuaren hierarkian oposaketa bertikala egin daiteke, beti ere oposaketa deialdia balego, hezkuntza ikuskatzailea izateko. Gaur egun, ikuskatzailearen postua karrera funtzionarioaren berme eta egonkortasuna ematen duen lanpostu bakarra da, irakasleentzako bere lan-ibilbideaz aritzen bagara.

Orain arte modu ofizialean dauden aukerez hitz egin dugu. Goazen hemendik aurrera proposatzera jorratu daitezkeen beste hainbat bide.

Jakina da hainbeste urte gelan pasa ondoren irakasleek jasaten duten nekea: inplikazio afektiboa, gelaren erritmoak, nerabeen izaera bai fisikoa bai psikologikoa. Proposamen bat izan daiteke irakasleek adin batera iristen direnean aukera izatea lanpostuz aldatzeko: kudeaketa, berrikuntza, ikuskaritza, ebaluazioa. Beste proposamen bat izan daiteke irakasle lan historia eta narrazioa ezagutzea, jakin dadin irakasleek hezkuntza-sistemari zein gaitan eskaini diezaioketen onena. Adibidez, Teknologiako irakasle batek makinen diseinuan sor dezakeen gida didaktikoa edota Historiako irakasleak artxibo lanak egiteko aukera izatea Eusko Jaurlaritzako erakunde batean...

Lehen esan dugu institutuko irakasleek, doktore izanda ere, unibertsitatean gehienez asoziatu moduan eman ditzaketela eskolak. Alegia, institutuko irakaslea izan eta doktore gradua duenari sistemak ez dio aitortzen bere balio akademikoa ez ikerketa mailan ez berrikuntza mailan; gainera, egoera hori Unibertsitatean eta Bigarren Hezkuntzako institutuan gertatuko da. Egoera horren aurrean interesgarria izango litzateke erregistro bat egitea. Ezagutzea zenbat doktore dauden institutuetan lanean eta zein gai jorratu dituzten, bai ikerketan, bai berrikuntzan. Azkenik garatu beharko litzateke estrategia bat ondare hau aitortzeko; ondorioz, hezkuntza komunitatean eta gizartean onura lortzeko giza-kapital honekin.

Artikulu bukaeran gaude. Esan dezagun irakaslearen lan-ibilbidean

ikertzen jarraitu behar dugula. Gure ustez, hezkuntza berrikuntzan eta ikerketa mailan, bai irakasleen narrazioen teknika kualitatiboak, bai irakasleen historien ikerketak aipagarriak dira metodo gisa (*ikus bibliografia).

Lerro hauetatik gaiaren lekukoa hartzea eskatzen diet Madrilgo Hezkuntza Ministerioari, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari, partidu politikoei, sindikatuei eta, jakina, irakasleei.

Aspalditik hitz egiten ari dira irakasleen ebaluazioaren beharraz, baina ezer gutxi ikertzen ari da besteaz: nola ikusten duten irakasleek bere lan-ibilbidea.


Lerro hauetatik ere esan nahiko nuke sistemak adierazi behar diola adineko irakasleari zor zaion onura eta balioa, dagozkion tresnak erabiliz: adibidez, klaustroan esperientzia handiena dutenei aukera emanaz irakasle gazteei laguntzeko eta ofizioa erakusteko. Hala, oreka zainduko dugu gaztearen ilusioarekin eta kemenarekin. (*ikus bibliografian, (2007) NIETO, S.)

Alferrik da idaztea, ez badago nor irakurri. Hortaz, nire esker onenak *hik hasi*-ko irakurle guztiei.

Bibliografia

- BOLÍVAR BOTÍA, A, “Las historias de vida del profesorado: voces y contextos”. *Revista mexicana de investigación educativa*, ISSN-e 1405-6666, Vol. 19, Nº. 62, 2014, págs. 711-734.
- HERNÁNDEZ Y HERNÁNDEZ, F.; RIFÀ VALLS, M. 2011. *Investigación autobiográfica y cambio social*. Barcelona. Octaedro.
- IRAOLA MENDIZABAL, I. 2009 *Didáctica de la geografía humanística: explorar el concepto de lugar en la ciudad postindustrial, mostrar la acción educativa desde la narración del profesor*. UPV/EHU.
- NIETO, S. 2007. *Razones del profesorado para seguir con entusiasmo*. Barcelona. Octaedro.
- Aipatu den pelikularen fitxa: *La Ciudad de las Estrellas. La La Land* (Españian jarri zaion izenbururua). Zuzendaria: Damien Chazelle. 2016. Ameriketako Estatu Batuak.

ARGITALPENAK



TANTAK 29(2)

Askoren artean

EHU

Sei lan biltzen dira *Tantak*-en ale berri honetan, denak euskararen irakaskuntzari lotuak. Esate baterako, Iruñe Ibarrek eta Xabier Etxaguek *Eskuz idaztearen hil-kanpaiak?* lana aurkezten dute, eta Eneritz Garcia-Arriolak *Ahoz-kotasunaren balio pragmatikoa ipuin kontaketan*. *Koldo Amestoy kontalaria-zen zenbait ipuinen azterketa*.



ARDITUTAKOAK

Mikel Begoña/Adyur Larrea

BERTSOLARI ALDIZKARIA

Amerikako euskal artzainen inguruko komiki-istorio bat argitaratu du *Bertsolari* aldizkariak. Gidoia Mikel Begoña historialari eta liburuzainak idatzi du, eta liburu formatua eta narrazioa erabili ordez, komiki batean aurkeztu nahi izan du gaia. Horretarako, Adyur Larrea marrazkilaria-aren ilustrazioez baliatu dira.




MAMUEK EZ DUTE ATEA JOTZEN

Gerardo Markuleta

ALGAR

Hartza eta muxarra lagun handiak dira eta beti dabilta elkarrekin jolasean. Baina, arratsalde batean, hartzak ahatea ere gonbidatu du. Muxarrari ez zaio gustatzen hartzarekin berak bakarrik daukan adiskidetasuna hondatu dezakeen beste edozein etortzea. Edozer egiteko prest dago ahatea beraiekin jolastera joan ez dadin.




MAINAMIKIRRI

Castillo Suarez

FANIETORRI

Burunda inguruko ahozko tradizioko bi ipuin biltzen dira album formatuan. Ahotsak egitasmoko grabaketak eta Jimeno Jurioren bilketa monografikoak oinarri hartuta egin du lana idazleak. Idatzizkoa edergailurik gabe agertzen da, transkripzio baten eran ia, boz gora irakurtzeko oso modu egokian. Tradizioaren haria moztu gabe, egungo testuingurura hurbiltzea lortu dute.




TXIRULA EZTIA II

Arantxa Zubillaga

ARANZUBIL

Txirula ezta oinarri duen material pedagogikoaren bigarren alea aurkeztu du Arantxa Zubillaga irakasleak. Lehenengoan bezala, txirularekin jotzeko partiturak daude, beste instrumentuekin lagunduta jo daitezkeenak. Bigarren liburuan abestien maila pixka bat igo du. Helburua da ikasleen aniztasuna aintzat hartuta, denek parte hartzeko moduko materiala edukitzea.



ERIKA, EZ NAIZ PERFEKTUA

Alfredo Bañeres/Alfredo Piedrafita

EREIN

Inperfekzioaren aldeko manifestu bat da, eta hori adierazteko Erikaren historia du kontagai. Triku eme bat da Erika, hanka bat galdu duena eta horregatik abandonatua izan dena basoaren erdian. Hantxe doa basoan bizi diren pertsoniak banan-banan ezagutzen, eta ulertuz doa ikasgai bat; inor ez dela perfektua eta nork bere burua den bezalako maitatzen ikasi behar duela.

PROPOSAMENA

‘Ongi etorri lagun’ CDa eta antzerkia

Musika eta antzezlanaren eskutik integrazioaren alde

Zenbait euskal abestirekin batera, munduko hainbat herrialdetatik Bilbora etorritako haurren tokiko abesti tradizionalak bilduta, ‘Ongi etorri lagun’ izeneko CDa kaleratu du Kurkuluxetan kultur elkarteak. Izen bereko antzezlanaren ere martxan dute, kanpotik datozen haurrei ongi-etorria egin eta haien integrazioan laguntzeko xedez sortua.



Kanpotik Euskal Herrira etorri diren haurren errealitatea islatzea eta haien gizarteratzea nolakoa den erakustea helburu hartuta, *Ongi etorri lagun* CDa plazaratu du Kurkuluxetan kultur elkarteak. Hala diote: “CD honen bidez haur guztien integrazioaren aldeko aldarria egiten dugu, norberaren

kulturatik abiatuta eta Euskal Herriko errealitatera hurbilduz. Plazaratutako disko berri honen bidez gure begikotasuna adierazi nahi izan diegu Euskal Herrira iritsi diren milaka haurri, beraiek ere gure gizartearen zati bat direlako, eta haiekin batera eraikiko dugulako etorkizuneko herria”.

Hala, 13 abestiz osaturiko CDa egin

dute. Horietatik bi euskara hutsez daude idatzita eta beste bat —*Lantzeko Inauteria*— euskal tradiziokoa da. Baina gainerako hamar abestiak osatzeko, munduko hainbat herrialdetatik heldutako umeen tokiko kanta tradizionalen bertsioak egin dituzte: Zambia, Angola, Bolivia, Sahara, Errumania, Errusia, Nikaragua, Txi-

na... Abesti horien guztien jatorrizko musika errespetatu da. Zenbait estrofatan hizkuntza ere mantendu da; beste batzuetan, berriz, euskarazko itzulpena sartu dute.

Lan hau burutu ahal izateko, hainbat abeslariren kolaborazioa izan du Kurkuluxetan elkarteak. Jatorrizko hizkuntzetako hitzen euskarazko bertsioak Koldo Zelestinok egin ditu; musikaren konponketak egiten, berriz, Jose Ramon Gutierrez aritu da; eta abestien melodia berriak Itxaso Azkonak sortu ditu. Ahotsak jartzen, abestien jatorrizko herrialdeetatik etorritako haurrak ez ezik, Arrigorriagako Artizarra musika-eskolako ikasleak aritu dira. Amaitzeko, proiektua Rita Naveirak koordinatu du; diseinua Atoan! Komunikazioak; eta argitaratzailea Erroa argitaletxea izan da.

CDa eskuratu nahi duenak umegunea@gmail.com helbidera idatzi behar du.


Antzezlanaren ere bai

13 abesti biltzen dituen CDa kalera-tzeaz gainera, izen bereko antzezlanaren ere egin dute. *Ongi etorri lagun* antzerki lanarekin ere, CDarekin

bezalaxe, Euskal Herrira datozen haurren errealitatea islatzen saiatu dira eta haien integrazioa nolakoa den erakusten. Antzezlanaren musikala da eta CDan jaso dituzten abestiak obraren ere kantatzen dituzte.

Antzerki lanean kontaktatzen denez, Mari Leka eta Panpoxa ikastetxe berean dauden bi neska dira. Egun batetik bestera haien eskolara kanpotik etorritako hainbat haur iristen dira: batzuk gurasoek ekarrita, beste batzuk gerratik ihesean, badaude adoptatutakoak ere... baina den-denek euren hizkuntza eta euren abestiak ekartzen dituzte. "Edozein kasutan, zergatik erabaki dute euren herrialdea utzi eta Euskal Herrira etortzea? Muturoker pertsonaia gaiztoa gerrak, goseteak eta haur askoren zorigaiztoa sorrarazten ari da. Zer egingo dugu Muturoker kanporatzeko? Lagunduko diguzu haur hauei ongi-etorria ematen elkarrekin euskaraz bizitzeko?"

Antzerkia ikusi nahi izanez gero, datorren martxoan, apirilean eta maiatzean hainbat emanaldi egingo dituzte Euskal Herriko hamaika txokotan. Informazio gehiago www.kurkuluxetan.eus webgunean eskura daiteke.



'Ongi etorri lagun' CDa eta antzerkia

Ekoizlea

Kurkuluxetan elkarteak
www.kurkuluxetan.eus

CDa eskuratzeko zer egin?

umegunea@gmail.com helbidera idatzi.

Datozen antzerki emankizunak

- Martxoak 19: Alegia
- Martxoak 16: Abusu
- Martxoak 18: Aretxabaleta
- Martxoak 20 eta 23: Etxebarri
- Apirilak 13: Aramaio
- Apirilak 20: Orkoi
- Maiatzak 11: Zeberio



ATZEKO ATETIK



ANAIA NAGUSIA

IXABEL AGIRRESAROBÉ IPUIN KONTALARIA

Gaur egun hiru haurren ama naiz. Tira, haurrak ez, gazte eta nerabeen ama.

Urteak pasa dira eta ez dut ahaztu lehenengo semearen egokitzapen garaia. Bigarren eta hirugarrenarena gutxiago, bikiak baitira, eta egokitzapena egiterakoan ea gela bakarrean edo bereizita jarri behar ote ziren galdetu zidatenean, egokitzapena nolakoa izango zen galdetu nien. “Amak edo aitak haurrekin gelan egon beharra dauka” erantzun zidaten. Praktikotasunera jo nuen: biak batera, bestela goiz osoa batekin egon eta bestea amonarekin utzi, gero hura hartu eta beste horrenbeste, eta gero hirugarrena jaso...

Kontu hauekin ari nintzela, orain dela urte asko eta asko, Usurbilen beste neska-mutil mordoxka batekin batera ni jaio nintzela gogoratzen hasi nintzen. Momentuz etxeko txikiena izango nintzena. Hala ere, ez zuen egoera horrek gehiegi iraun, sei urte geroago beste anaia bat izan baikenuen. Eta a ze poza nirea etxeko txikiena ez nintzela izango

jakin nuenean. Ez baintuen enkar-gu txikiak gehiago egingo aitzakia horregatik behintzat.

Tira, jarrai dezadan gaiarekin. Orduko haur-eskolara (guk “parbulitos” deitzen geniona) ni baino zertxobait zaharragoa den anaia hasi zuten, eta ez lehen urtean, baizik eta bigarren edo hirugarrenean. Anaia honek etxea asko maite zuen, segur aski amazulo bat izango zen eta ez zuen ez berehalakoan zapaldu ikastetxea. Eta joaten zen bakoitzean izaten zituen istorio eta misterio ugari etxetik ez ateratzeko.

Egun batzuetan normal joaten zen, baina tarteka-marteka anaiari etxemina edo amamina etortzen zitzaion eta ez zuela ikastolara joan nahi, eta ezetz eta ezetz. Hau komeriak! Gure amak etxean makina bat lan izaten zuen, noski, garaiko sendia baikinena, lau seme-alaba jarraian.

Tira, esaten ari nintzenera etorritz, amak nolabait lortzen zuenean anaia ikastolarako bidean jartzea, bazitekeen negarrez hastea, eta horretarako nengoen ni, bera baino gazte-

agoa eta txikiagoa, bi urte inguru izango nituen.

Ez dakit metodo hau anaiak edo amak asmatu zuen, baina ni “komodin” ederra izan nintzen krisialdi haietarako. Pentsa ezazue, hura ni baino zaharragoa zen arren, ikastolara joan nahi ez zuenean arreba txikiarekin bidaltzen zuen amak! Eta anaia-arrebak gustura joaten ginen.

Orduko anaiaren andereñoa zenak, zoragarria benetan, garai hartan izan nituen hiru andereñoak bezalakoxea, ez zuen inoiz aurpegi txarrik jarri ni gelan ikustean. Bakar-bakarrik galdera hau egiten zidan:

- Andereñoa: Zergatik etorri zara ba zure anaiaren gelara?
- Ixabel: Berak ez zuelako bakarrik etorri nahi. Nik lagundu egin diot.

Kontu honek ez dakit zenbat denbora iraun zuen, baina nire eskolatzeko garaia iritsi zenean inoiz egin den egokitzapenik naturalena egin nuen. Nire gelakideak negarrez ikusten nituenean, ni ordurako ohitua nengoen nonbait, eta lasai ederrean egoten nintzen haiei begira.



Euskal hezkuntzaren zoru etiko eta pedagogikoa

jardunaldia



Hezkuntza hobetzeko gakoak EZTABAIDAGAI

Apirilaren 21ean, larunbatean, Donostiako EHUren Barriola eraikuntzan

Aurkezpenak, eztabaida eta hausnarketa EGUNA

Hik Hasiren 10 gakoen gaineko eztabaida irekia planteatuko da.

* Hizlarien artean izango dira, besteak beste, *Kontxi Atzarna, Xabier Sarasua, Joxe Mari Auzmendi, Amaia Etxabe, Xabier Tapia, Ane Ablanedo, Nora Salbotx, Lore Erriondo, Alexander Barandiaran, Izarne Garmendia, Mariam Bilbatua eta Eneko Itziar.*

Informazio osoa eta izena ematea

www.hikhasi.eus helbidean



0-3 urte bitarteko hezitzaileentzako prestakuntza (6. promozioa)

Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakontzeko asmoz, 250 orduetik gorako bi urteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean Hik Hasi-k. Hiru oinarri nagusi ditu formazio borrek:

- **Emmi PIKLER** (Koordinatzailea: Juanjo QUINTELA)
- **Loris MALAGUZZI** (Koordinatzailea: Alfredo HOYUELOS)
- **Formakuntza pertsonala** (Koordinatzailea: Alvaro BEÑARAN)

Ikaslerro bakoitzean, gaien adituak diren Euskal Herriko nabiz kanpoko beitzzaileek emango dute prestakuntza.

Informazio osoa eta izena emateko aukera:

www.hikhasi.eus helbidean